




GOIERRITARRA



GARMENDIA ERAIKUNTZAK

Zurezko eta edozein
motako teilatuak



**30 URTEKO
GARANTIA**

**AURREKONTUAK
NEURRIRA**

☎ 943 - 69 35 49

📞 929 - 46 95 26

LARRAITZ 98

HARRI ETA HERRI



Independentzia eta
Sozialismoaren alde **20**
urte **HERRI BATASUNA**

uztailak 4

17...: hitzaldia
19...: herri olinpiada
21...: afaria
23...: kontzertua

sarrera: 500 psta.

MARRUMA



king
Mafrundi



uztailak 5

10...: zutabeak



12...: ekitaldi politikoa
15...: haur jolasak
16...: pailasoak

Talalo, Pirritu eta Poxotx

17...: herri kirolak
18...: euskal erromeria

irrintzina

... zure
esku dago

"Buelbaka - Buelbaka Birziklatuz"

Datozen hilabeteetan honelako 210 edukinontzi jarriko ditugu Goierri eta Urola Garaia eskualdeetan. Sar itzazu bertan plastikozko eta metalezko ontziak eta Tetra Brikak, ondoren sailkatu eta birziklatu ahal izateko.

Gutxitu hondakinak,
berriz erabili eta birzikla itzazu

Guztion mesedetan izango da



Gipuzkoako Foru Aldundia
Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentua



**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Gabino Murua, Maider Azurmen-
di, Aitziber Murua, Josune Alda-
be, Iñaki Gurrutxaga Saroi Jaure-
gi, Iurre Eskisabel, Guzman
Vazquez eta Josune Eskisabel.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Ona grafikak
(Artika - Nafarroa)

Tirada: 7.100 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Herriz
herri,
zinea
kalean,
Goienizen
eskutik**

Goieniz, Goierriko Zine
kluba, udako gau giroan,
zinea herriz herri eskain-
tzen ari da. Ordizia, Zaldi-
bia eta Lazkaoko pilotale-
kuetan izango dira hiru
saio, uztailaren 3, 8, 9 eta
10ean, gaueko 10,30etan.
Emanaldi guztiak dohainik
dira. Gazteleraz. 16 mili-
metroko filmak izango dira
guztiak.

Uztailaren 1ean eta 2an,
Lazkaon eta Itsasondon
izan ziren bi saio eta beste
lau gelditzen dira. Egutegi
zehatza hauxe duzue:

Uztailak 3, ostirala:

Ordizian: 'Con la muerte
en los talones' pelikula.

Uztailak 8, asteazkena:

Zaldibian: 'Lady Halcon'
filmea.

Uztailak 9, osteguna:

Ordizian: 'Los Siete Mag-
nificos'.

Uztailak 10, ostirala:

Lazkaon: 'Los Siete Mag-
nificos'.

Ekimen honek, Ordizia,
Itsasondo, Zaldibia eta
Lazkaoko udalekin batera,
Gipuzkoako Foru Aldun-
diarena ere badu.

Pelikula bakoitzaren ar-
gumentua eta informazio
zehatzagoa, 6. orrian,
agendaren orrietan izango
duzue.

BOTA BERTSOA

**Gipuzkoako Eskolarteko txi-
pelketan botatako bertsoak**

Gaia: zuen eskolatik gela
osoa etorri zarete asteburu al-
berge edo aterpetxe batean pa-
satzera. Gaur duzue lehenengo
gaua zuen etxetik kanpora.
Konta iezaiguzue bertso bate-
an nola zabiltzaten.



Aitzol Munduate

Alberge baten hementxe gabiltz
benetan pozez beteta,
lagunak ere ondoan eta
jolasteko nahiko beta,
ahaztuak ditu haserrealdi
burruka edota seta,
amaren bronkak ez entzutea



Irati Goikoetxea

Aterpetxera etorria naiz
gelakidekin batera,
ta ikaratuta nago hau baita
gau luze baten hasera,
etsipenean erori gabe
jarraituko det aurrera
gau luzeenak egunsentian
izaten du amaiera.

*Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Teleskopio erdaldunak, Goiekiren aginduz

Ekainaren 21ean, Altzagaratera joan, eta han ikusi nuen ikustekoa, alazankoa!. 'Goiekik' Goierriko 6 tokitan jarri dituen teleskopioetako batean, (besteak ere horrela egongo direla uste dut, Olaberriakoan bai behintzat) beroien erabilpenerako oharak erdara hutsan daudela. Lau erdara edo hizkuntza ezberdinetan: garrantzitsuen gaztelaz, eta gainerakoa frantsesez, ingelesez eta alemanez. Euskaraz hitzik ere ez. Lotsagarria eta onartezina!

Nolako turismoa bultzatu nahi du 'Goiekik'? Euskararen, euskal kulturaren eta azken batean, Goierriren izaeraren zapaltzaile dena. Teleskopioa lekuko!

Bestalde, 1676. 'Argia' astekarian 'Goiekik' eta 'Goimenek' egin duten iragarkian zera irakur daiteke: "Zatoz euskararen gordailu den Goierriara, naturak eta historiak lagunduko zaituzte zure ibilaldian". Goierri euskararen gordailu delako harro egon bai (horrela di-

rudi esaldi horretan), baina euskara ez da gordeta edukitzeko sinbolo polit eta erakargarri bat, egunero, guztiok eta edonon erabiltzeko hizkuntza baizik. Goierriren historia euskaraz sortua izan da. Gure arbasoen eta Goierriren hizkuntza, nortasuna, zuek bezalakoei ari zarete gal arazten.

Beraz, teleskopioen oharak (eta beste arlo guztietakoak ere bai noski), euskarari eta euskaldungoari zor zaigun errespetoz eta behar duen garrantzia emanaz jartzea exijitzen diogu 'Goiekiri' euskaldunok lerro hauetatik.

Tomas Agirre (Beasain)

Arrazoia eta hizkera

Andoni Sarriegiren "Alkartasuna lizeoa mailak galtzen hasi da" artikulua irakurri dut ekainaren 19ko GOIERRITARAn. Eta erantzutea pentsatu dut. Beste bat izan balitz, ez niokeen kasu zipitzik ere egingo; aspaldi esana dut, ordea, errieta egitekotan, lagun eta adiskideei egin behar zaiela. Eta espero dezadan, ematen dio-

dan belarri-tiraizoa gorabehera, aurrerantzean ere adiskide onak izaten segitzea.

Andoni, arrazoia bere alde duenak ez dik, moteil, lengoaje klase hori erabiltzen. Arrazoi duenak argudioak azaltzen ditik argi eta garbi, inor iraintzeko premiarik gabe. Arrazoi ezarena nire dedukzioa duk, dena dela, ez zekiat-eta Alkartasuna Lizeoan zer pasatzen ari den, baina hire hizkerari itxura txarra hartu zioat; arrazoi baldin baduk ere, ondo gaizki defendatu duk! Horixe duk dena.

Hori duk dena edo hori duk niri gutxien axola zaidana. Hanka, benetan, honako esaldi honetan sartu duk: "Hau bigarrena da. Lehena, administrazioak herri txikietako Ikastolak irensteko erabilitako herri-eskola irensketa-formula maltzurra izan zen". Hau ez zezakeat onar, Andoni. Uste diat prozesu horretaz zedozer baino gehixeago dakidala, eta ez daukak horrela mintzatzeko eskubiderik. Hain zuzen, herri txikietako Ikastolak Herri Eskola bihurtzeko prozesua Zaldibian hasi

zuan, eta ez baldin badakik (badakiala uste diat baina), jakin ezak Ikastolak berak eskatuta hasi zela prozesu hori.

Barkaidak, baina elkar-tze prozesu hori Ikastolen sorrera bera bezain inportante jotzen diat. Bai, Ikastolen sorrera bera bezain funtsezko; eta, "egiak" esaten hasitakoan, egia osoak esan behar ditek. Prozesu horrek, batez ere, orduko eskola publikoa Herri Eskola Euskaldun bihurtzeko serbitu zian. Hori duk egia osoa! Herri Eskolara seme-alabak bidali ditugun guraso guztiak intsultatu gaituk. Eta eskola horietako maisu-maistra guztiak iraindu ditut. Prozesu hura burutzen hainbeste lan egin zuten herritarrek hobendu.

Galde ezak Herri Eskola horietan ibilitako ikasleek zer-nolako emaitzak izan dituzten. Nik, konkretuki, ezagutzen ditiak batzuk, eta hik esaten duan beste horietan ibilitakoen inbiriari gabe moldatu direla uste diat joandako lekuan, euskara barne.

Rufino Iraola (Zaldibia)

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

GOIERRITARRA



943 88 96 12

Argitarapen honen editorea argintzaile:
En la edición de esta publicación colabora:



*fundazio
fundación*

TXANDAKA

Kontaketan

Txiki-txikitan ikasten dugu kontatzen. "Bat eta bi, aguazila etorri; soka kendu, espetxera eramán", kantari soka-saltoaren hari luzean. Izan ere, oso inportantea da kontatzen jakitea, batik bat, denbora neurtu ahal izateko. Izan ere, momentu batek, eta bik, eta hiruk osatutako hari luzea da bizitza; eta bizitza hala denez, baita geu ere.

"Bi eta bi lau dira / beste bi sei dira / zeruan izar dizdira...", koadrila luzean kantari. Oroitzapen bat, eta bi, eta horrela. Urte bat, eta bi, eta horrela. Lagun bat, eta bi eta horrela. Amodio bat eta bi eta horrela.

Batzutan asaldatu egiten gaitu kontatzeak, ohartzen garelako, bapatean, oroitzapenen zakua betetzen ari dela eta hondo-hondoan daudenak ja ez ditugula gogoratzen, arazoak ditugula haiek biltzeko. Asaldatzen gaitu konturatzeak gero eta urte gehiago kontatzen ditugula iraganean eta gero eta gutxiago ditugula etorkizunean. Asaldagarria da ere, halako batean ohartzea lagun eta amodio andana igaro dela gure bizitzetatik, gure momentuetatik, eta urrundu direla eta haiekin batera hainbat bizitza puska zoragarri —bidenabar, agur goxo bat jada nire bizi pusken mugan dudán lagun min bati. Etorkizunean izango ote dugu momenturik!-.

Baina kontatzeak guri sortzen digun asaldadurak ez du batere balio, zigorren hiru laurdena bete eta oraindik espetxeetan segitzen duten presoek zama izugarriarekin alderatuz gero. Gaitz sendaezinak izan, eta ziega ilunetan segitzen duten presoek larridurarekin konparatuz gero. Haiek lau horma itxien artean pasatzen duten segundu bakoitza lizundutako bizitza puska handi-handi bat baita. Kontatzen eta kantatzen segituz, 564 (tik gorra) ohe huts gure bihotzetan.

Idurre Eskisabel Larrañaga



Udalekuetara joaten al zara?



Mikel Garin
13 urte, ikaslea
ordiziarra

Aurten ez naiz joango, nire laguna ez baita animatu. Aurreko urteetan Ezkaraira joan izan naiz eta ondo pasatu nuen.

Adur Colias
12 urte, ikaslea
ordiziarra

Beste urteetan Urdira joan izan naiz, baina aurten ez naiz joango. Lagun asko egiten dira udalekuetan eta ondo pasatzen da.



Iñaki Hernandez
12 urte, ikaslea
ordiziarra

Ez naiz sekula joan udalekuetara. Baina herrian antolatzen diren udaleku irekietan parte hartzen dut.



ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



- × LEIHOAK, ATE-AK eta abar
- × ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

OSTATUA



Juanito Rubio



Oianguren parkea
☎ 88 91 06
ORDIZIA

JATETXEA

- × Eguneroko menua
- × Enpresa menuak
- × Asteburuetoako menu bereziak
- × Ospakizunak
- × Banketeak, jaunartzeak, ezkontzak...

Zenbait jantoki, 8, 20 edo 150 mahaikiderentzat tokiarekin

ZINEA

BEASAIN:

'Deep Impact'. Ostirala 3: 22:15; larunbata 4: 19:30 - 22:15; igandea 5: 19:30 - 22:15; astelehena 6: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Herederas de la tierra'. Ostirala 3: 22:15; larunbata 4: 19:30 - 22:15; igandea 5: 19:30 - 22:15; astelehena 6: 19:30.

'Robison Crusoe'. igandea 5: 16:45.

GOIENIZ KALEAN:

(Herrietako frontoian)

'Con la muerte en los talones'. Ordizia ostirala 3: 22:30.

'Lady Halcon'. Zaldibia asteazkena 8: 22:30.

'Los 7 magnificos'. Ordizia osteguna 9: 22:30. Lazkao ostirala 10: 22:30.

'Los Siete Magnificos'

John Sturges (EEBB, 1960)

Kurosawaren 'Zazpi Samurai' pelikulan oinarritutako filme hau, zinemaren historiako western ospetsuenetako bat da. Aktore talde itzel eta musika oso ezagun baten laguntzaz, zazpi pistolari kontratatzen dituen herri baten istorioa kontatzen digu. Zazpi pistolari hauen betebeharrak, herria 'Calvera' maltzuraren taldearengandik defendatzea.

'Con la muerte en los talones'

Alfred Hitchcock (EEBB, 1957)

Suspentsearen azitia zergatik deitzen zioten argi geratzen da filme honetan, Hitchcock handiak direnak eta ez direnak asmatuko baititu ikuslea estuasun batean aulkari erantsita filma bukatu arte mantentzeko asmotan, baita lortu ere! Publizista soil bat (Gary Grant) esistitzen ez den espia batekin nahasten dute, estatubatuar espioitza zerbitzuek amarru bat prestatu baitute atzerritar espia erakunde bat atzemateko. Hortik aurrera Gary Grant umoretsu eta kementsu batek gorrak ikusi beharko ditu abentura korapilatsu horretatik onik atera nahian. Film klasikoa, akzio irudi ahaztezinak gordetzen dituena.

'Lady Halcon'

Richard Donner (EEBB, 1984)

Abenturazko zine onenaren erakusle honetan, 'Alquila'ko ziega beldurgarrietatik ihes egitea lortu duen gizon bakkarak, 'Phillipe Arratoiak' alegia, zapelats dotorea alboan daraman armadura beltzeko zaldun misteriotsuarekin topo egingo du. Ilunabarrean, zapelatsa dontzeila bihurtuko da. Richard Donner, New Yorkeko zuzendaria, telebistan hasi zen lanean, 'Kojak', 'Cannon' edo 'Iheslaria' bezalako telesail ospetsuak zuzenduz. Zinean 'Profezia', 'Superman' edo 'Arma letal' filme arrakastatsuak zuzendu ditu, besteak beste.

MUSIKA

ATAUN:

Uztailak 3, Fist Fucking, The body Snatcher's eta Deen Dogs taldeen kontzertua, Aiako plazan, 21:00etan.

Uztailak 3, Koldo Iparagirre trikitilariaren kontzertua, 24:30ean, Aiako plazan.

Uztailak 4, Etzakit taldearen kontzertua, 24:00etan, Aiako plazan.

MUTILOA:

Uztailak 3, Etzakit taldearekin dantzaldia, plaza, 23:30ean.

Uztailak 4, 'Alaitz eta Maider' eta 'Maixa eta Ixiar' trikitilariekin dantzaldia plaza, 23:30ean.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Uztailaren 3ra arte, Patricia Piñeiren pintura

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 88 72 21

☎ 910 02 00 41

Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44
ORDIZIA

erakusketa, Aterpe tabernan.

ORDIZIA:

Uztailaren 15era bitartean, Barrena Kultur etxe-ko tailerreko ikasleen pintura eta zeramika erakusketa, Barrenan.

MENDI-IRTEERAK

Ordiziako mendizaleak:


Uztailak 3-4-5: Gavarnie-Marboré.

Idizabalgo mendizaleak:

Uztailak 5: Aizkorri.

Uztailak 10-11-12: Soques-Aremoulit-Formigal-Ajous.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 943-88 05 87.

Uztailak 4-5: Cuesta (Nafarroa Etorb., 39- Beasain). 943-88 05 87.

Uztailak 11-12: Atorrasagasti (Paz auzoa-Ordizia). 943- 88 29 38.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Abuztua Zumaian pasatu nahi baduzu, pisu txikia daukat alokatzeko. Ongi kokatua eta erabat hornitua. Bosgarrena, igogailurik gabe. Polita. Telefonoa: 943-86 12 24.

☐ Santa Polan apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 40 metrora, herri erdi-erdian. 943-888318.

☐ Goierrin pisu bat hartu nahi dugu lehenbailehen alokairuan. 919-47 53 74.

Salerosketak:

☐ Kanpin-gurdia erosiko nuke, 2 metroko kajarekin. 943-731960 telefonora deitu, 9etatik 10etara. Josebagatik galdetu.

☐ Diskoak, singelak eta LPak erosten ditut. 943-526577.

☐ Bi akumuladore salgai. Bata, estatikoa, handia, 2.000 batiokoa. Beste, dinamikoa, handia, 2.000 batiokoa. Egoera onean. Prezio ona. 943-733769. Mari Solengatik galdetu.

☐ Karreterako bizikleta salgai. 'Mendiz' markakoa, berri-berria. Gauez deitu 943-88 82 95-era.

☐ Comanche markako kanpin-gurdia salgai. 2 gelakoa eta abantze bikoitzekoa. Behin erabilia. 943-885873.

☐ Pitt-bull txakurkumeak salgai. Pantxo eta Patrick odolekoak. 50.000 pezetan. 943-79 37 17.

☐ 486 ordenagailua salgai, 16 Mb-eko memoria, 850 Mb-eko disko gogorra eta 8Xko Cd-Rom unitate batekin. 943- 65 29 95.

Lana:

☐ Zuen elizkizunak (ezkontza, zilarrezko eztei, bataio...) apain ateratzea nahi duzuela? Lau neskez osaturiko talde bat gaituz, eta gure ahots, kantu eta instrumentuez dotoretuko dugu zuen zita. 943 - 88 27 38 / 943 - 88 75 05.

☐ Udako mekanografia ikastaro intentsiboak Beasainen eta Idiazabalen. 943-889993 / 943-187188.

Haur - eskola ☎ 943 88 39 26
SEASKA ikasleen etorbidea, 1
BEASAIN



- ✓ 0-3 zikloa bere osotasunean eskeintzen duen zentro bakarra
- ✓ 1a 20 urteko esperientzia
- ✓ Giro euskalduna (D eredua)
- ✓ Bertako sukaldean prestatutako janariak
- ✓ 3 urtetik aurrerakoentzat zerbitzu irekia: goiz, eguerdi eta arratsaldeko zerbitzuak; eta eskola-ikastolako oporraldietan aktibitate eta irteera bereziak (udalekuak)
- ✓ Matrikula epea irekita dago

UDA IKASTAROAK

IKASTEK AKADEMIA

KALITATEA eta PROFESIONALITASUNA

✓ IRAILEKO AZTERKETEN PRESTAKETA

- ☐ OHO, DBH, LOGSE, LH, BBB, UBI.
- ☐ Maila eta arlo guztiak
- ☐ Datorren ikasturterako prestaketa

✓ ESKOLA LAGUNTZA

- ☐ Banakako laguntza
- ☐ Lehen Hezkuntzatik aurrera

✓ UNIBERTSITATE MAILA

- ☐ Enpresaritza
- ☐ Ingeniaritza
- ☐ Kimika

Informazioa: ☎ 943 16 01 20
Joan Iturralde, 5 BEASAIN



Guzman Vazquez

(Goiztiri AEK-ko irakaslea)

“AEKren delitu bakarra euskararen alde aritzea da, Euskal Herria euskalduntzeko ahalegin handiak egitea eta lan hori bukatu arte lanean jarraituko duela ez isiltzea”

Duela 6 hilabetetik hona, gutxi gora behera, AEK-k hogeita hamar urteko historian inoiz jasan ez duen, erasoaldi bortitzek gertatu dira. Lehenengo, 1997 urtearen bukaeran gertatu zen, Amara Berriko euskaltzain egindako “Bahiketa” ariketaren inguruan. Erasoa honen euskarria hain ahula izanik (era guztietako liburuetan antzekoak eta gogorragoak ere agertzen direla frogatu baitzen), tamainako erasoaldiak adierazten zuen lehen mailako jomuga AEK eta euskara zirela.

Zaparrada bat igaro orduko, bigarrena etorri zen gainera, aurrenekoak adinako zabalkunde mediati-koa izan ez bazuen ere, susmo larriagoak erakusten zuena; AEK-k behin eta berriro frogatu duen diru kontuen gardentasuna zikindu nahi zuten bete-betean, gero diru laguntzen ezabaketa eskatzeko.

Eraso guztien gainetik, AEK lanean

Aurreko bi zaparrada mediatikoekin bidea egin ondoren, hirugarrenean jauzi kualitatiboa etorri da. AEKren izena zikindu nahian, muturreraino jo dute, ETArekin lotura zuzena duela aditzera eman arte.

Azken erasoaldi honen zantzuak ezin esanguratsuagoak dira: inongo euskarririk gabeko jazarpen judiziala, salaketa edo kargu zehatzik mahagaineratu gabe, frogarik izan gabe eta ezer zehatzik leporatu gabe.

Honen guztiaren aurrean, garbi utzi nahi dugu euskararen aurkako eraso dela eta, era berean, gure izanaren kontrakoa. AEKren delitu bakarra euskararen alde aritzea da, Euskal Herria euskalduntzeko ahalegin handiak egitea eta lan hori bukatu arte lanean jarraituko duela ez isiltzea. Hau bereziki azpimarratu behar dugu, beste gauza batzuen artean egia delako. Kontestu honetan gure lana normaltasunez beteko dugula esan beharra dago, ahalik eta ikasle guztien galtzeko eta gure oinarritzko lana delako. Ikasleekiko gure konpromezuak beteko ditugula garbi utzi behar dugu.

Oso argi dauzkagu gure helburuak eta gure bihurtzekoak ere bai. Egunero lana da gure argumenturik onena. Inork ez dezala zalantzarik izan lan honekin jarraituko dugula gure helburu horiek erdietsi arte.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27



BEASAIN

IBAI-ONDO


ZURGINTZA
ALTZARIAK

P.V.C.ko LEIHOAK



Antzizar Auzoa, z/g

☎ 943 880543 BEASAIN



XENKEGI
ETXE-AROKINTZA

Diseinuak neurritara

Larunbat arratsalde irekita

Erakusketako ☎-faksa: 943 889113 - ☎ mugik.: 908 863591

Senpere Merkatalgunea, 38

BEASAIN

**Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak**



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA

ERREZETA



Maribi Dorronsoro
Ostatua
Gabiria

BAKAILAOA TOMATEAREKIN

Osagaiak: bakailaoa, irina, olio, tomatea, piper berdeak, tipula eta baratxuriak.

Bakailao takoak, bera-tzen jarri, 36 bat orduz. 8 ordutik behin, ura aldatu.

Bakailaoa uretatik atera, lehortu, irinetan pasatu, eta frijitu.

Bestetik, tomatea egin, tipula, baratxuri eta piper berdearekin. Bakailaoa to-matetara bota eta bertan bu-katuko da egiten. On egin!



Josune Eskisabel
Josune estetika

Beltzaran-kolore erakarga-rria eguzkia egoki hartuz eta babeserako eguzki kos-metika erabiliz lor daiteke. Eguzkiaren babeserako zenbaki bat baino gehiago azalaren edertasun eta osa-sunerako garantia da.

Azala gaizki babestua dagoenean, izpi ultramore-ak A.D.N. zelularrean era-



AHOLKUA

Azal beltzarana arriskurik gabe

sotzen dute, eta azalaren osasuna arriskuan jartzen duten atzeraezinezko kal-teak eragiten ditu.

Azala arriskurik gabe belzteko aholkuak:

- ✱ Lehenengo egunetan ba-besle altuagoa eman, azala eguzkira ohitu da-din.
- ✱ Eguzkia hartzen hasi baino 20 minutu lehena-go eman krema, erredu-rak ekiditearren. Krema hobeto hartuko du aza-lak, urik, izerdirik edo bestelako kremarik ez badauka.
- ✱ Ez ahaztu belarriekin, belaun atzealdeekin, es-kuekin eta oinekin, aza-la finagoa da eta era be-

rean, sentikorrangoa.

- ✱ Eguzkia hartzeko or-duak gutxitu: hiru ordu laurdenetik ordu betera nahikoa da azala belzte-ko. Denbora gehiagok ez dauka eraginik, me-lanozitoak bete egiten baitira.
- ✱ U.V.A. izpien kabinetaz ere ez ahaztu, oporren aurretik azala prestatu egiten baitu.

Ondoren?

- ✱ Azala ondo hidratatze-ko, ondorio lasaigarriak dituen esnea eman.
- ✱ Peeling bat, uste dena-ren aurka, ez baitu bel-tzaran kolorea desager-tzen. Alderantziz, argi-tasuna emango dio, iluntasuna ematen dion hildako zelulak kenduz.
- ✱ Astean behineko U.V.A. izpien saio batek zure oporrek gehixeago luza-tuko ditu, gehiago zain-du, eta beltzaran kolore-ak eta azalaren itxura onak gehiago irauteko.

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

ARRIZAR BODEGOIA
Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara
Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 **BEASAIN**

VOLVO
TOYOTA
ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

AMEBI
Sagardotegia

Erretegi bezala egunero irekita eguerdi eta gauean, astelehen gauean ezik.

- ✱ Eguneroko menua
- ✱ Karta zerbitzua
- ✱ Plater konbinatuak
- ✱ Asteburuetan menu bereziak

Zubierreka, 9 ☎ 943 16 25 23 **LAZKAO**

Herri Batasunak 20 urte

Herri Batasuna sortu zela 20 urte bete dira aurten eta Larraitzen urteurren hau ospatzeko asteburuko festa antolatu dute. Bihar eta etzi, uztailak 4 eta 5, hainbat ekitaldi izango dira:

Uztailak 4, larunbata:

17:00etan: Hitzaldia.

19:00etan: Herri olinpiada.

21:00etan: Afaria.

23:00etan: Kontzertua: Marruma, Fermin Muguruza eta Dut, eta King Mafrundi. Sarrerka, 500 pezetan.

Uztailak 5, igandea:

10:00etan: Amezketatik eta Zaldibiatik bi zutabe abiatuko dira.

12:00etan: Ekitaldi politikoa.

15:00etan: Haur jolasak.

16:00etan: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak.

17:00etan: Herri-kirolak.

18:00etan: Euskal erromeria Irrintzina taldearekin.

20. urteurrena dela eta, Karmele Aierbe ataundarrari, Mahai Nazional berriko kidea, elkarrizketa egin diogu, 13. orrialdean.



Kimetz Larrañaga Eneritz Epelde

Azkoitiar bikoteak irabazi zuen Segurako XXII. Dantza Askatuko txapelketa. Aitzol Ena bergararrak eta Nagore Ziganda hernaniarrak osatutako bikoteak bigarren egin zuen. 25 bikotek hartu zuten parte eta finalean 12 izan ziren.

Janzkera arloan emandako saria, Aiert Beobide eta Ainara Vazquez donostiar bikoteak eraman zuten. Eta bikote gazteenaren saria, berriz, Lezoko Mederi Orbiso eta Leire Irasuegi bikoteak.

Ordiziako azken 3 atxilotuak kalean

Idoia eta Ekain Mendizabal anai-arrebak eta Idoia Garmendia gazteak ekainaren 17an libre gelditu ziren, urtarrilaren 31tik Alcala Jovenes kartzelan preso egon ondoren. Aurtengo Idiazabalgo jaietan ertzain baten etxea erasotzea leporatu zien Ertzantzak hiru gazteei. Ordiziarrek ukatu egin zuten epailearen aurrean. Komisaldegian pasatu zituzten egunetan, torturak eta mehatxuak jasan behar izan zituzten ordiziarrek salatu izan dutenez. Ekainaren 20an ongi-etorri egin zitzaizen Ordizian.

Lazkibar

Lazkibarko lurrazpiko lanak espero baino gehiago ari dira atzeratzen. Arazo teknikoak izan omen dira atzerapenaren arrazoiak. Zorua asfaltatua dago dagoeneko, baina seinalezazioak falta dira. Gauzak honela, uztailan inauguratzea espero da, zamaketaren proba egin ondoren.

Aralar, parke naturaletan ingurugiroan interesgarriena

Consumer aldizkariak egin dako ikerketa batek dionez, Aralar Parke Naturala, Estatu Espainiarreko iparraldeko 16 lurraldeetako interesgarriena da, ingurugiroaren aldetik. Guztira 21 par-

ke natural aztertu dituzte. Faunaren aberastasuna aipatu du Consumerrek, hegazti migratzaileen joan-etorria dela eta. Dena den, jendearen harrera zerbitzuari dagokionean, eskasenetarikoa da Aralarkoa.

Joxe Azurmendi

'Oraingo gazte eroak. Go-goetak ETaren sorreraren inguruko kultur giroaz eta gaurkoaz' liburua aurkeztu zuen Joxe Azurmendi zegamarrak ekainaren 18an Donostian, Enbolike bilduma berriarekin.



Ander Perez

Iberdrola taldeko Ander Perez zegamarrak, junior mailako, Gipuzkoako Itzuliko hirugarren etapa irabazi zuen.

Ricardo Otegi

Ordiziar eskalatzailea bigarren izan zen ekainaren 20an Gasteizen jokatu zen Euskadiko txapelketan. Punta-puntan ibiltzen den Josune Bereziartu beasaindarrak ez zuen parte hartu txapelketa honetan.

GESTORIA BIOK

ASEGURUOK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierrri, 12

ORDIZIA

PIRINEO 98


PIRINIOTAKO ZEHARKALDI INTEGRALA ITSASOTIK ITSASORA (Banyuls-Hondarribi)

Bost aste edo sektore aukeran

Uztailaren 26tik
abuztuaren 29ra

Ezagutu ezazu Goi-pirinioa lasaitasun eta giro jatorrean

Informazioa: J. Ramon Agirre
(Marron) ☎ 943 18 02 53



Beasaingo Txindoki Institutuak hiru sari irabazi ditu Urruzuno lehiaketan

Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen gazteentzako Urruzuno literatur lehiaketan, Txindoki Institutuko hiru ikasle saritu

dituzte. Prosa arloan, Ainara Gorostizuk, 'Londresko Bluesik ederrena' lanarekin, eta David Ferreirok 'Zakurra' lanarekin irabazi dute. Ekaitz Goikoetxeak 'Gauaren ilunduran' lanarekin, poesia arloan. Epaimahaia kide hauek osatu dute: Juan Kruz Igerabide, Joxemari Iturralde, Joxe Mari Sartrategi, Arantxa Urretabizkaia eta Patxi Zubizarreta.

Urtero bi ikastetxeri aipamen berezia egiten zaie literatur arloan egindako lana goraipatu eta eskertzeko asmoz. Eta aurten Txindoki Institutua goraipatu dute. Aipamen hau dela eta, hiru irabazleekin batera, bertako irakasle batek, irailaren azken aldera, 10 eguneko bidaia egiteko aukera izango du.

Beasaingo Ezkiaga auzoko futbito txapelketa

Ekainean zehar jokatzeko aritu da III. Ezkiaga auzoko Futbito txapelketa Murumendi ikastetxeko kantxan. 20 taldek parte hartu dute eta pasa den igadean finalerdiak jokatu ziren. Lehenengoan, bi talde lazkaotar izan ziren aurrez aurre, eta Sporting del Cojonek 5-3 garaitu zuen Los Txulos. Bigarrenetan, berriz, Ibarako Mattin Gaiztoa taldeak 3-2 irabazi zien Aker-Esparru beasaindarrei.

Gauzak honela, bihar larunbatez jokatuko diren azken partiduak erabakita geratu ziren. Arratsaldeko 4etatik aurrera 3. eta 4. posturako norgehiagoka izango da: Aker Esparru - Los Txulos. 17:00etan auzoko haurren arteko partidu bat izango da. Eta azkenik, 18:00etan final nagusia iritsiko da: Sporting del Cojon - Mattin Gaiztoa.

Juan Ramon Mendia

Asegarce pelota enpresak Juan Ramon Mendia beasaindarrari kontratua ez berritzea erabaki du. 38 urte ditu Mendiak eta 1982an egin zuen debuta profesional mailan. Baina azkenaldi honetan hainbat lesiorekin partidurik jokatu gabe egon da.

Mikel Lasa

Legorretar futbolaria Donostiako Artzai Onaren katedralean ezkondu zen ekainaren 19an, Maider Etxenagusia donostiarrarekin.



The Clover School of Languages

Domingo Unanue Pl., 5

☎ 943 16 20 16

ORDIZIA

Udan ere zure frantsesa edo ingelera beharretan laguntzeko gaituzu.

Gainera:

- ✓ Abendurako 'Cambridge' azterketarako prestakuntza.
- ✓ Ingelera eta hipikako udalekuak.
- ✓ Ingelera ikasi jolastuz.



Urtean 1.500 pezetako kuota ordainduz, GOIERRITARRA aldizkaria lagundu nahi dut Goierriarrak Kultur Elkarteko kide eginda



Izen abizenak:

Helbidea:

Herria: **Tfnoa.:** **Adina:** **NAN:**

Lanbidea: **Banketxea:** **Bulegoa:**

Kodea: **Kontu zenbakia:**

AITOR GALDOS ZEGAMARRA GAZTE ABERTZALEEN GIPUZKOAKO LEHENDAKARI: "Independentista eta ezkertiarztat dugu geure burua"

Aitor Galdosek 22 urte ditu eta Zuzenbidea ikasten ari da. Eusko Alkartasunako gaztedien gipuzkoako lehendakaria izan da azken urtean eta uztailaren 4an Gabirian egingo duten lurralde batzarrean utziko du postu hau.

- Urtebete egin duzu Gipuzkoako Gazte Abertzaleen buruan, zein izan da egin duzuen lan nagusia?

- 3 arlotan banatu da urte honetako lana: Militantzi berriaren kaptazio kanpaina bat hasi gara egiten; alde hortatik urrats bat eman dugu. Irlandako bake prozesuari buruz zenbait mintegi egin ditugu. Informazioa bildu eta euskal gatazkarekin dauzkan paralelismoak aurkitzen saiatu gara. Erakundearen antolaketan bailara bakoitza indartu eta egiten dituen ekintzetan parte hartu herki-batzorde edo lurralde-batzorde moduan.

Goierrin Irlandako bake prozesua lehenengo bailara-ka aztertu genuen eta gero asteburu bat antolatu genuen lurralde mailakoa San Adrianen, bertan Gipuzkoako ponentzia prestatu genuen. Goierrri mailan Euzko Gaztedirekin ere harremanak izan ditugu.

- Alderdi abertzaleak elkarren harteko harremanak hasi dituzte, gazte taldeok zein harreman duzue?



Aitor Galdosek dionez euskarak motibatu du politika munduan lana egiteko eta alderdi barruan borrokatzeko.

- Gazteok zer egiteko asko dugu baina norbaiti badagokio gauzak konpontzea nik uste alderdi politiko eta agente sozial ezberdinei dagokiela. Lurralde mailan alderdi politiko guztietako gazteekin izan dira harremanak, denak mahai baten inguruan bilduta. Gazteen aldetik badago konpromezu bat gauza hau konpontzeko eta horretan ahalegindu gara eta ahaleginduko gara.

- Zuen ikuspuntutik zeintzuk dira gazteen arazo nagusienak?

- Langabezia eta indarkeria dira gazteok ditugun bi arazo larrienak. Langabeziarekin bat beste arazo asko dago, etxebizitza duin bat lortzeko aukerak murriztu egiten dira. Alde horretatik Goierrri salbuespena da, Arrasate inguruarekin batera, Euskal Herriko langabezia tasa baxuena dugu, baina etxebizitza batean bizitzen sartzeko ditugun oztopoak bizi ditugu. Hor EArene lana izan da Eusko Jaurlaritzan babes ofizialeko etxebizitzak egitea.

- Goierrri mailan zenbat kide ditu Gazte Abertzaleak?

- 100 lagun inguru mugitzen gara. Goierrriko ia herri

guztietan batzordeak dauzagu. Herri txikienetan batzorderik ez izan arren kon-taktoak ditugu.

- Nolaz Gabirian batzar hau?

- Gabiria betitik izan da leku enblematikoa bai gure alderdiarentzat baita abertzaletasunarentzat ere. Gerra zibilean proportzioan gudari talde handiena eman zuen herria izan zen. Gaur egun, berriz, abertzaletasunak atxikimendurik handiena jasotzen dituen herrietakoa da eta gainera EArentzat herri garrantzitsuena, %60ko boto kopurua lortuz. Sekula ez zaio horrelako eskerrik eman eta zerbait egiteko modua gurenean haxe egitea erabaki dugu.

- Zer egingo duzue bertan?

- Kongresua pasatu berria dugunez han onartutako zenbait ponentzien errepaso egingo da estrategi politikoaren inguruan, eta junta berriaren aukeraketa egingo da. Ondoren berriz bazkaria egingo dugu.

- Zein estrategia politiko duzue?

- Lehen-lehenik Euskal Herrian dugun gatazka egoera konpontzea. Gatazkak bi al-

derdi ditu. Alde batetik Madrilen kateak, eta bestetik ETArene aizkora. Guk burujabetasuna eskatzen dugu Euskal Herriarentzat, independentista eta ezkertiarztat dugu gure burua. Nik beti sinil bat egiten dut, etxe batekin: independentzia lortuz gero etxea gurea izatea lortuko genuke, baina etxea oraindik egin beharra dago. Euskaldunon %40ak euskaraz ez dakienean, ondo dago gure buruaren jabe izatea baina etxea ez da horrekin bukatzen.

- Euskara aipatu duzu, arlo honetan zer egiten duzue?

- Kanpora begira ez dugu lan berezirik egiten, barnera begira saiatzen gara ez dakitenei ikastarazi eta batzarretan erabilera bultzatzen. Neuri pertsonalki euskara da gehien arduratzen nauen arazoetako bat. Politikan lan egiteko motibatu naue-na, baita alderdi barruan burrokatzeko ere.

- Hemendik aurrerako helburu nagusiak zeintzuk dira?

- Hori hurrengo batzordeak erabaki beharko du, pentsatzen dut orain arteko lana jarraituko dutela gutxi gorabehera. Ni neure aldetik, lehen baino gogo gehiagorekin nago jarraitzeko. Baina alderdietan demostratu behar da igogailua ez dela igotzeko bakarrik, jaisteko ere badela. Lana behean ere egin liteke, militantziarekin, herriko jendearekin, erantzun zuzenago bat emateko. Nire asmoa hori da Goierrin eta Zegaman gazte erakundea indartzen saiatzea.

Karmele Aierbe: "Herri Batasunak erreferente politiko izaten jarraitzen du 20 urte ondoren"

Karmele Aierbe
ataundarra.

Ataungo HBko zinegotzia eta HBko Mahai Nazional berriko kidea. Herri Batasunak 20 urte bete dituela eta berarekin izan gara.

Herri Batasuna sortu aurretik ere herri mugimendu asko izan zela Euskal Herrian gogoratu digu Karmele Aierbek. "Franco hil inguruan mugimendu dexente izan ziren: langileen mugimendua, LAB; KAS alternatiba ere sortu zen, bost puntutan oinarrituta; horren inguruan mugimendu berriak sortzen joan ziren, LAIA, ESB, EIA (hau ez zen sartu HBn)... Mugimendu horiek piska bat gorpuzteko edo horiei nolabaiteko oinarria emateko, 78an lehenengo aldiz, jende ezberdinak osatutako mahai bat sortu zen Altsasun. Herri Batasuna deitu zitzaion gero mahaiari". 1977ko lehenengo hauteskundeetan ez zuen parte, bigarrenen bai. "Sorrerarekin batera, Euskal Herriko bizitza politikoan edo gizartean, indar handiz sartu zen, lehenengo hauteskundeetan parte hartu zuenean. Ustekabe handia eman genuen, ez zelako hainbesteko boto kopurua lortzerik espero".

HB sorrerati gaurdaino "mugimendu hausle edo rupturista bezala izendatu da, oso kanpaina gogorrak bideratu zituelako. Lehenengo izan zen, Espainiako Konstituzioaren aurkako kanpaina. Gero, OTANena



edo Lemoiz gelditzearena", dio ataundarrak.

Aierbek gogoratu duenez, beti jasan behar izan ditu erasoak HBk. "HBk eta oro har ezker abertzaleak min handia egiten du Espainiako gobernuak markatutako estrategiaren bidean, eta baita estrategia horri babes ematen dien Euskal Herriko bizitza politikoan ere. Askok sufritu behar izan du HBk, errepresio asko jasan behar izaten ditugulako, eta saiatu direlako bizitza politikotik HB desagertarazten, eta hala ere ez dute lortu. Eta tartean, hori horrela izan dadin, Gasteizko, Madrilgo eta Nafarroako paktoak sortu zituzten. Hala eta guztiz ere, eginahal guzti horiek hor egonda ere, gaur egun iristen gara Mahai Nazional berri bat izatera, zaharra kartzelan daukagula; preso asko ditugu, erahilak asko ditugu, baina erreferente politiko nagusi bat izanez jarraitzen dugu 20 urte eta gero. Mahai Nazionala kartzelan: horrelako erakunde baten zuzendaritza politikoa kartzelan egon beharra, horrek, Espainian edo Euskal Herrian bizi dugun talante demokratikoa oso garbi era-

kusten du nola dagoen. Zuzendaritza politiko oso bat kartzelan izatea ez da txantxetako gauza bat".

Argi dauka Aierbek, HBrik gabe Euskal Herria ez litzatekeela berdina izango. "Herri Batasunaren helburua ez delako botoz sendotzea. Helburua Euskal Herria bera, eta bere soberania direlako. HBk eta ezker abertzaleak orokorrean, klabe horretan egin du lan eta ez interes propiorako. Bestela 20 urteotan jasan behar izan dugun errepresio gordina ez genuen maila berdinean jasan ahal izango".

Eraikuntza nazionala

HBren aurrera begirako lan ildoaren ardatza eraikuntza nazionalen oinarrituko da. "Erreferentzia Euskal Herriaren independentzia da. Gaur egun oso egoera garrantzitsu eta historikoan gaude. Aspaldian ez bezala, gehiengo berri bat, gizartean, sektore ezberdinak hasi direlako, aldarrikapen ezberdinak egiten. Sektore ezberdinak, ELAren kasua, Estatutua agortuta dago esaten ari dira.. Horrek adierazten du, marko baten agorpenean gaudela eta marko berri baterantz pauso berriak ematen hasi behar dugula nahitanahiez. Transizio berri batean sartu behar dugu. Marko berri baterako oinarriak jarri egin behar ditugu. Nazioa eraiki egin behar da eta nazioa eraikitzeke atal ezberdinak jorratu behar dira eta maila horretan adostasun berriak

ere sortu egin behar dira." Soberaniaren klabeen urrats minimoak eman egin behar dira Aierberen esanetan." Alderdiekin ere, noski, arlo sozialean zein politikoan, minimoak adostera joan behar dugu. Klabe horietan, eraikuntza nazionalaren bidean, hiru urrats garrantzitsu eman dira: batetik, euskal selekzioaren legea onartu zuten Gasteizko Legebiltzarrean; Trebiñoren kasuan, Araba dela, urrats garrantzitsuak eman dira, guxtienez, ados jarri dira erreferenduma eskatuz; eta hiru garren, Legebiltzarrean Giza Eskubideen batzordean, presoak Euskal Herrira ekartzearen aldeko kanpaina adostutakoa. Gauza txikiak dira, baina aldi berean, handiak".

Bidean traba asko jartzen hasi zaizkiela gogoratu du. "nagusiena, Gernikan hil zuten Lizartzako Inaxi Zeberrioren gorpua. baina guk ez daukagu hor gelditzeko asmorik. Errepresioari erantzuten jarraituko dugu errepresioa jasotzen badugu, baina guztien gainetik, guk, eraikuntza nazionalaren bidean ilusionaturik jarraituko du, gehiengoak horrela uste duelako. Posible dugu maila handi batean bidea elkarrekin egitea".

Hurrengo hauteskundeetara begira, "gehiengo berria sendotuta ateratzea da guztion nahia. Espainolismoaren aldetik dagoen estrategia horri behingoz aurre egiteko, gehiengo abertzale berri horren aldetik. Ez baldin gara adostasun batera iristen, azken inkestek dioten bezala, espainolismoak berriro ere gora egingo du".

Ekitur: zerbitzu turistiko eta kulturalak eskaintzen dituen enpresa

Gema Lopez ordiziarak, Mari Jose Insausti segurarrak eta Aitziber Murua ormaiztegiarrak Ekitur enpresa sortu dute. Ihardunaldi turistikoak eta kulturalak antolatzeko sortu da. Goierri dituen baliabideak, oraindik ere asko esplotatzekoak omen dituenak, kanpotarrei eta bertakoei erakutsi nahi dizkie. Ordiziako Mallutz Industrialdeko 29. pabiloian dauden momentuz, Goiekiren bulegoetan. Aurrera begira, beste lekuren batean jartzea dute helburu.

Goiekik (Goierriren garapen agentzia) ekonomia dibertsifikatzeko egin zuen apustua dela eta, turismoari indarra ematen hasteko, ikastaro berezi bat antolatu zuen. Bertan aritu ziren Gema Lopez, Mari Jose Insausti eta Aitziber Murua, turismoak aukera ona eskaintzen duela ikusirik, Ekitur O.E. enpresa sortu dute. Urtarrilean hasi ziren lanean izen horrekin.

Goiekik antolatutako ikastaro horretan, hainbat ibilbide prestatu zituzten. Jendearen deiei erantzuten jarraitzea erabaki zuten Ekiturretik. Goiekik ere asko animatu zituen bide horretatik jarraitzeko. Baita, Gipuzkoako Diputazioak enplegu berria sorrera bultzat-



Mari Jose Insausti, Gema Lopez eta Aitziber Murua dira Ekitur enpresa martxan jarri dutenak.

zeko Esparru programatik jasotako dirulaguntzak ere.

Turismoa eta kultura

Bi helburu nagusi ditu Ekiturrek hiru kideek adierazi digutenez: batetik, Goierri dituen baliabide turistikoak eskaintzea; eta bestetik, kultur ekintzak antolatzeko.

Turismoari dagokionean, ibilbide hauek dituzte zehaztuta eta bertako gida lanak egiten dituzte: Erdi aroko hiribilduei bisita; Idiazabal Gaztaren ibilbidea; nekazal munduari bisita; Santiagoko bidea; uraren ibilbidea; Zumalakarregi General karlistaren jaioterria eta bizitza; eta bailara guztian zehar ibilaldiak. Orain dena den, ibilbideak konbinatzen ere hasi dira, turistek denerik piska bat ikus dezaten. "Goierri baliabide nahiko gutxi ditu oraindik, esplotatu gabe baitaude. Gehienak Zerainek dauzka eta hori pagotxa da guretzat. Dena den, herri gehienak bisitatzeko ditugu. Talde batzuek zenbait ideia dituztela deitzen digute, eta horren ara-

bera moldatzen ditugu ibilbideak", argitu digu Mari Jose Insaustik.

Aizkorri eta Aralarko Parke Naturaletan abenturazko kirola (senderismoa, trekkinga, mendi bizikleta) egiteko aukera eskaintzen du.

Ekiturkoek adierazi digutenez, oraindik baliabide asko dago esplotatzeko Goierri. "Herri asko daude orain piska bat turismoa bultzatu nahi dutenak. Baina oraindik hasten eta kontzientziazten ari dira. Baina ez da erraza eta pausoz pauso egin beharrekoa da. Goierriko herriren batek turismoa bultzatu nahi badu, geure burua eskaintzen dugu, proiektua egin eta garatzen laguntzeko". Baliabide baten gestioa eramatea ere ez omen litzaieke inportako. "Zerainen enpresa pribatu batek darama gestioa, eta gure asmoa ere horrelako zerbitzetan sartzea", azpimarratu dute.

Beste zerbitzu bat ere eskaintzen du Ekiturrek: goie-

rritarrei Goierri kanpoko bidaiak antolatzea.

Momentuz behintzat, argi daukate, hirurak ezin direla turismotik bakarrik bizi. Hori dela eta, kultur ekintza ezberdinak ere antolatzen lan egiten dute. Mari Josek eta Aitziber beraien herrietako udaletxeetan aritzen dira, kultura dinamizatzen. Hor ere beste aukera bat ikusten dute.

Azpiegitura gutxi

Normalean, orain arte, egun bateko ibilaldiak egin dituzte. Extremaduratik etorri ziren bi egunerako, eta haientzat lotarako lekua aurkitzen nahikoa lan izan zuten, guztientzako toki berean, lekuri ez baitzegoen. Bi hoteletan sartu behar izan omen zituzten. Hotel aldetik eskas, beraz.

Nekazalturismoko etxetan aukera handiagoa daukagu. 11 baserri daude prestatuak jendea hartzeko: Altzagarate (Altzagan), Baztarrrika (Gabirian), Aldarreta eta Andralizeta (Ataunen), Borda (Olaberrian), Mandubiko Benta (Ezkio-Itsason), Arrieta-Haundi (Zegaman), Lazkao-Etxe eta Aizporra (Zaldibian) eta Tellerinea (Zerainen). Gema Lopezek adierazi digunez, oso ondo saltzen den produktua da nekazalturismoarena. "Guk uste baserri gehiagok animatu behar luketeela nekazalturismoa jartzera". Bartzelona, Madril eta Bilbon egin diren turismoko azoka berezietan, informazio asko eman izaten da turismo mota honi buruz. Batez ere, katalanen artean.

OSASUNA, MENDE BUKAERAN HELBURU

O sasuna, betidanik izan da eta da gizakion kezka nagusia. Edozein helburu txikiena ere, lortzeko beharrezkoa dena.

Bestalde, gizarte honetan prestakuntza eta iharduna handiena behar dugu baldintza berdinetan lan egiteko, horretarako osasuna ezinbestekoa dugularik. Osasunik gabe, beste guztia alferrik dago, honetan denak ados, eta honen zaintzan aurkitzen dute bere izaera osasun laguntzako aseguruek.

Guztiok nahi dugu osasun laguntza azkarra eta eraginkor bat, ilada eta itxarote zerrendarik gabekoa. Harreman eta tratu zuzena. Izan ere, bermatu egin behar da gaixoei buruzko informazioaren konfidentzialtasuna eta segurtasuna.


Hau da, aseguru pribatuek eskaintzen dutena, sendagile zerrenda zabala, zeuk aukera dezazun, Gipuzkoako edozein

zentro Pribatuetan egonaldia bakarkako geletan (Poliklinika, Pilar, Quiron), eta arazoak hemen bertan konpondu ahal izateak ematen duen erosotasuna, Beasaingo Mediku-Kirurgikoko zentruan (Fonda).

Bizi kalitateak ez dauka gutxi batzuentzat abantaila zertan izan beharrik, zeren laguntza pribatua edozein familiaren eskura egon baidateke, (hilean 2.700 pezetatik).

Zeuk eta zeure familiak hasieratik eskertuko duzuen inbertsioa. Osasunak ez du preziorik eta hobe da aurre hartzea gaixotasunari.

Azkartasuna, ersotasuna, segurtasuna, prebentzioa; oinarritzko arazoak dira, edozein familiak behar dituenak eta aseguru pribatuek bermatzen dituztenak.




IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako pasealekua, 20

☎ 943 88 87 02

BEASAIN



GOIERRITARRA ALDIZKARIAK MARKA BERRIA HAUTSI DU:

7.100 aleko tiradarekin, irakurle gehien duen euskarazko herri-aldizkaria

GOIERRITARRA aldizkariak marka berria hautsi du. Ale kopuru handiena argitaratzera iritsi da: 7.000tik pasata alegia. Honela, Euskal Herriko herri-aldizkarien artean tiradarik handiena duen aldizkaria izatera iritsi da. Kopuru hori gainera, oraindik ez da gelditu, hamabostero-hamabostero etengabe goraka doazelako harpide berriak. 7.100eko kopuru honekin, Goierriko erreferentzia bezala finkatu da, bai informazioa zabaltzeko, bai publizitatea egiteko garaian. Poztasun honek, ordea, beti gertatu ohi den bezala, badu bere alde tristea: tirada goraka doan neurrian, gastuak ere goraka doaz etengabe. Institutioetatik jasotzen ditugun dirulaguntzak, aldiz, gero eta txikiagoak dira. Erreportaia honetan dituzue hainbat datu eta xehetasun.

Gero eta jende gehiagok irakurtzen du GOIERRITARRA aldizkaria. Horren lekuko da, 7.100 ale kaleratzen ditugula. 7.057 harpide ditugu. Horrek esan nahi

7.057 harpidedun herriz-herriz	
Altzaga	30
Arama	22
Ataun	358
Beasain	1.553
Ezkio-Itsaso	56
Gabiria	70
Gaintza	21
Idiazabal	407
Itsasondo	102
Lazkao	701
Legorreta	181
Mutiloa	35
Olaberria	144
Ordizia	1.191
Ormaiztegi	235
Segura	281
Zaldibia	298
Zegama	303
Zerain	43
Goierri kanpo	1.026

du, aldizkari bakoitza batz beste, hiru pertsona eta erdik irakurtzen badu, 24.770 irakurle dituela GOIERRITARRAk. Herri-aldizkarien artean tiradarik altueneko aldizkaria da gurea. Lehenengo taulan dituzue herriz herriko harpidetza datuak.

Datu aipagarria da benetan, Goierriko herrietan bantzeaz gain, Goierritik kanpora ere, mila aletik gorra bidaltzen direla. Goierri bizi diren goierritarren aldizkaria izateaz gain, Goierritik kanpo bizi diren goierritarren ere bada. Baita urrutienekoena ere: Estatu Batuetara, Kolonbiara, Uruguayra, Argentinara, Dominikar Errepublikara, Italiara, Frantziara... iristen baita GOIERRITARRA aldizkaria.

Beste datu garrantzitsua bat ere badago harpidetza kopuru hontan. Familia erdaldunetan ere sartzen ari da aldizkaria, euskalduntak seme-alabei esker.

Urtez urteko bilakaera

9 urte ditu aldizkariak. Lehenengo hilabetekaria izan eta 1994an hamabostekari bihurtu zenetik izan du harpidetza kopuruak igoerarik handiena. Hamabostekari produktua izanik, gaurkotasunezko eta gertuagoko gaiak jorratzeko aukera ematen baitu. Datuen arabera, urtero, 1.000 harpide berri egin dira. Harpide berriak dira hain zuzen ere, guztion eguneroko lanaren saria. Hain zuzen ere, aldizkarian idatziz parte hartzen dugunona, informazioa bidaltzen dutenena, eta nola ez, publizitatea egiten dutenena. Harpidetza datuek, aldizkaria gero eta onartuagoa dela adierazten dute. Bigarren taulan dituzue urtez urteko datuak.

Azken hiru urteetako harpidedun bilakakera:

1993an:	2.322
1994an:	3.410
1995ean:	4.739
1996an:	5.886
1997an:	6.768
1998ko uztailen:	7.057

Zaila da hamabostero-hamabostero aldizkaria hitzez eta publizitatez betetzea. Batzuetan informazioz edo gaiez gainezka izaten den bitartean, besteetan, herri azpitan ere bilatu behar izaten da. Batzuetan albiste alaiak izaten diren bitartean, besteetan tristeak nagusitzen dira. Batzuetan batzuentzat interesgarri diren gaiak azaltzen dira, baina beste batzuentzat hainbeste ez direnak. Azken batean, Goierriko gizartearen islada da GOIERRITARRA aldizkaria, Goierriren eta goierritarren zerbitzura dagoe-na.

Dirulaguntzak

Hamabostekari lana txukun eta behar bezala betetzeko noski, dirulaguntzak behar-beharrezkoak ditugu, publizitatearekin batera. Gipuzkoako Diputazioaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Goierriko 19 udalen dirulaguntza izaten dugu. Aurrekontuaren % 31,7 da guztien dirulaguntza (iazko datuak hartuta. Eta urtetik urtera dirulaguntzak jaisten ari direla hartu behar da kontuan). 19 udaleek, zehazki esanda, 3.272.525 pe-zeta eman dizkie GOIERRITARRAri; aurrekontuaren % 18,3a da.

Udalek urtean biztanle bakoitzeko 75 edo 125 pe-zeta ematen dizkio GOIERRITARRA aldizkariari. Kopurua herri batetik bestera aldatu egiten da. Proporzioan, txikienek gehiago ematen dute, handienek baino. Herri bakoitzak ematen duen diru kopurua, zenbait

kasutan behintzat, jaitsi egiten da urtetik urtera, biztanle kopurua ere beheraka doalako.

Beste herri-aldizkarietara, askoz ere dirulaguntza gehiago ematen die udalek. Gehiago inplikatzeko dira.

Aldizkaria, Goierriko merkatariek eta enpresek egiten duten publizitatearekin bizi da. Aurrekontuaren erdia baino gehiago publizitatearekin ordaintzen da. Merkatariek gero eta gehiago jotzen dute GOIERRITARRA aldizkariara, beraien produktua saltzeko publizitatea egitera. Euskaraz publizitatea egiteak saldu ere egiten duela adierazten du horrek. 7.100eko tirada izateak ere asko laguntzen du publizitatea egiteko GOIERRITARRA aukeratzean, goierritar gehienengana iristen baita mezua.

Gastu handiak

Inor sekula jarri al da pentsatzen GOIERRITARRA aldizkariak zenbaterainoko gastuak dituen eta horiek nola ordaintzen dituen, edo zenbat langile dituen eta zein egoeratan dauden?

Dirulaguntzak nondik datozen eta zenbatekoak diren adierazi ditugu aurretik. Gastuen arloan, aldiz, gasturik handiena aldizkariaren inprimaketak eta banaketak du. Aurtengo aurrekontuaren arabera, 9 milioi. Horri gehitu behar zaizkio, 3 lagun soldadak eta gizarte segurantzaren gastuak (3 urtez soldatarik igo gabe egon dira, soldata oso kaxkarra izanez eta gizarte segurantzaren egun erdia ordainduz), eta aldizkariaren eta bulegoaren funtzionamendurako

izaten diren gastuak. Guztira, 18 milioi. Lerro hauetatik eskerrak eman nahi dizkiogu Ordiziako udalari, bulegoa dohainik uzten digulako.

Goierrri egiten

Egoera honetan hain zuzen ere, hamabostero-hamabostero, GOIERRITARRA aldizkaria Goierrri egiten ari da. Goierritarrok gehiago ezagutu, Goierriko herriak

gehiago ezagutu, Goierriri batasuna ematen diogu. Jakin badakigu, hobetzeko asko dagoela, arlo askotan gainera, baina batzuen eta besteen borondatea falta da.

Oso kopuru garrantzitsua da 7.100ekoa. Informazioa zabaltzeko euskarri garrantzitsua da Goierrin GOIERRITARRA. Baita publizitatea egiteko ere. Beraz, aprobeztatu dezagun guztiok, erabil dezagun guztiok, lagundu dezagun guztiok.

Ez kobratzearen arrazoiak

Herritarrena den aldizkariak, herritar guztien eskura egon behar du. Irakurtzeko ohitura gutxi dago gure artean, are gutxiago euskaraz. Herri aldizkariaren filosofia,

gertuko informazioa emanez, jendeak euskaraz irakurtzeko ohitura hartzea da. Euskarak berez oztupoak ditu eta GOIERRITARRA aldizkaria kobratzen hasiko bagina, orain arte egindako bide pozgarriari, oztupoa jartzea izango litzateke. Politika da, sekula euskaraz irakurri ez duen aitona edo amona GOIERRITARRA irakurtzen ikustea, herriko kronika bakarrik bada ere. Politika da, euskaraz ez dakien gizon edo emakumea, GOIERRITARRA aldizkariaren orriak pasatzen eta ahal duena irakurtzen ikustea. Politika da, euskaraz ez dakien gizon edo emakume batek, GOIERRITARRA ez zaiola iristen eta kexaka deitzen duela entzutea. Politika da GOIERRITARRA aterata den zerbait buruzko komentarioak jendeari entzutea. Politika da, gaur egun oso zaila den arren, ideologia eta pentsakera ezberdinetako jendeak GOIERRITARRA irakurtzen duela ikustea. Horrek guztiak zerbait esan nahi du. Helburua betetzen ari da. Ez diezaiozun beraz, traba bat gehiago jarri euskarari. Borondatearen kontua da guztia.

Askoren borondatea dena den, benetan txalogarria da. Sosik kobratu gabe hamabostero euren kronika txoa idazten duten lagunena; zerbait eskatu eta edozertarako prest daudenena; urtean zehar, publizitatea egiten dutenena. Eta beste askorena. Eskerrik asko guztioi. Eta nola ez, eskerrik asko, GOIERRITARRA irakurle zarelako. Zuek guztiok zarete, GOIERRITARRA aldizkariari aurrera jarraitzeko indarra ematen diezuenak.

GOIERRITARRA aldizkariaren laguntzailea

Borondate kontua da, bai, GOIERRITARRA aldizkaria guztion artea hobetzea eta sendotzea. Bakoitzak ahal duen neurrian, GOIERRITARRA lagundu behar dio. Batzuek, idatziz; besteek, informazioa emanez; besteek, argazki zaharrak utziz; besteek GOIERRITARRAren aldeko errifak edo kamixetak erosiz; erakundeek dirulaguntza gehiago emanez; edo, GOIERRITARRA aldizkariaren laguntzaile egin eta urtean 1.500 pezetako kuota ordainduz.

Erakundeek dirulaguntzen jaitzieraren aurrean, eta GOIERRITARRA aldizkariak bizirik iraun dezan, laguntzaile kanpaina jarriko du martxan. Josune Amondarain legorretarra izango da laguntzaile bilketa egingo duena. Borondatezkoa da aldizkaria diruz laguntzea ala ez. Kanpaina honekin, inork ez dezala uste, aldizkaria kobratzen hasiko garenik. Ahal den bitartean, ez zaio bide horri helduko.

Beraz, GOIERRITARRA aldizkariaren laguntzaile izan nahi baduzu, 11. orrian duzun txarteltxo bete eta Ordiziako 124 posta-kutxara bidali. Horretarako alferra bazara, agian laster izango duzu Josune Amondarainen bisita eta ireki iezaiozu etxeko atea.

Azkeneko ohar bat: iaz bezala, irailean, 300.000 pezetako bidaia zozketatuko du GOIERRITARRA aldizkariak, nahi denean eta nahi den lekura egiteko. Beraz, Ordiziako iraileko azoka berezitik aurrera, aukeran izango dituzu, ero-


JUAN JOSE AROZTEGI, ARISTRAINGO ETA ACERALIAKO ZUZENDARI OROKORRA: "Munduko txapelketa ari gara jokatzeko etengabe"

Mundu osoan
duela 12-13
urte

altzairugintzak bizi
izan zuen krisia
gaindituta, aro
berrian sartu da
Aristrain. Aceraliaren
barruan garrantzia
handiko lekua
betetzen baitu. Juan
Jose Aroztegi
Urteaga ordiziarra
da J.M. Aristrain S.A.
eta Aceralia
korporazioetako
Zuzendari orokorra.
Etorkizunari aurre
egiteko, berritzaileak
eta ausartak izatea
behar-beharrezkoa
ikusten du
ordiziarrek.

Petrolio krisiarekin oso
larri pasatu zuen altzairu-
gintzak. "Orain dela 12-13
urte Estatuan oso birmolda-
keta egin behar izan zen.
Europar eta mundu guztian
ere bai. Or bain edo zikatriz
handiak utzi zituen, ez he-
men, beste lekuetan baizik",
adierazi digu Juan Jose
Aroztegi.

Dena den, krisia gainditu
bada ere, orain, beste erron-
ka bati egin beharko dio au-
rre Aristrainek: etengabeko
berrikuntzari. "Iraultza tek-
nologiko handian gaude
sartuta. Orain dela 150-200
urte aldaketak piskanaka
etorri ziren. Gaur egun, or-
dea, aldaketak etengabe eta
azkar datoz. Nanosegun-
duaren kultura gaude, hau
da, dena azkar egin behar
da".



Fitxa teknikoak:

- **Juan Jose Aroztegi:** ordiziarra. 57 urte. 7 seme-alaben aita.

Ikasketak: Injineru Industrial (Bilboko Injineru Indus-
trialen eskolan); Prozesu Metalurgikoen Injinerutza di-
plomatua (EEBBetako Ohio unibertsitatean); Injineru
Industrialean doktorea (Donostiako Nafarroko Unibert-
sitateko goi mailako eskola teknikoan); Enpresen Zu-
zendaritza Orokorraren diplomatua (Nafarroako Unibert-
sitatean).

Karguak: J.M. Aristrain Korporazioko eta Aceralia
Korporazioko Zuzendari orokorrak.

- **Olaberriako Aristrain lantokia:**

Langileak: 432 langile. Iaz injineru tekniko gazteak
hartzen hasi ziren eta aurten FP IIko ikasleak hartzen ha-
siko omen dira.

Iazko fakturazioa: 28.000 milioi.

Inbertsioak: Iaz, aurten eta datorren urtean, 7.000 mi-
lio baino gehiago inbertituko dira., Euskadin kokatuta-
ko enpresetan, euren konpetibitate handiagatik. "Orain
dela 8 bat urte plan estrategiko bat egin genuen, eta
modernizatzen hasi ginen. Datozen hilabete hauetan,
erabateko aldaketak izango ditugu, leku gutxietan beza-
lakoak. Datorren urtean plan estrategiko honekin buka-
tuko dugu. Hori bai, sekula ez da bukatzen aurrerape-
netan".

Berrikuntza

Dena azkar egin behar iza-
teko inbertsioak egin beha-
rra daude, konpetentzia
handia baita. "Gaur egun
etengabeko berrikuntza be-
har-beharrezkoa da. He-
mendik piska batera irudi-
menak eta sorkuntzak balio-
ko du. Metabolismo enpre-


sarial berria behar dugu.
Berrikuntzari dagokienean,
beti alerta egoeran egon be-
harra daukagu. Gaur egun
inozoak bakarrik sentitzen
dira eroso. Eroso sentitzea
suizidioa da. Berrikuntza-
rako, noski, taldea, langile-
ak behar ditugu. Konpetibi-
tatean txapeldunak izan

nahi dugu", dio ordiziarrek.

Konpetentzia leku asko-
tatik du Aristrainek. Berezi-
ki, Ingalaterra, Alemania,
Italia, EEBB, Canada, Ja-
pon, Corea, Rumania, Polo-
nia eta Luxemburgotik.
Aroztegiaren esanetan,
"munduan denetik dago so-
beran. Baina gure erronka
betetzen badugu, 2000. ur-
tean, gure antipodetan sal-
duko dugu, EEBBetan, Ca-
nadan... Europa gure etxea
da. Bezereoi balorea ema-
ten badiogu bakarrik garai-
tuko dugu".

Erronka zaila

Hori bai, Aroztegi jakin
badaki hemengo altzairua-
ren erronka oso zaila dela.
Lehengaiaren, hau da, txar-
tarraren, % 80a inportatu
egiten dute, Frantzia, Ale-
mania, Ingalaterra, EEBBe-
tatik... Iazko datuetan oina-
rrituz, txatarratik ateratako
altzairuaren % 71a esporta-
tu egin zen. Aurten, lehe-
nengo hiruhilabeteokoa,
% 75 esportatu dute. % 25a
Espainiara; % 33 Europara
eta bestea EEBBetara, Ca-
nadara, Afrikara, Ertameri-
kara, Asiara... esportatu zu-
ten iaz. "Oso enpresa gutxi
daude hainbeste inportatu
eta hainbeste esportatzen
dutenak. Oso erronka zaila
da. Erronka hau lortzeko,
besteek baino motibazio ho-
bea behar dugu. Motiba-
zioa, produktibitatea, kali-
tatea e.a. Oso zaila da moti-
bazioa izatea. Langileak
oso motibatuta egon behar
dira emaitza hauek lortze-
ko. Baina jakin behar dugu
munduko txapelketa ari ga-
rela jokatzeko etengabe. Ka-
litate, gama eta paradigma
berdinekin jarraitzen badu-



gu, indar handia hartuko du Aristrainek. European Aristrainek leku garrantzitsua beteko du”.

Hiru puntu hartzen ditu kontuan Aroztegik bere lana ondo betetzen ari den ala ez jakiteko: lehenengo, langileen bizimoduaren hobekuntza; bigarrena, akzionistei ordaintzea; eta hirugarrena, etorkizuna ziurtatzeko inbertsioak egitea.

Langile jaunak

Olaberriako langileez oso harro eta pozik dago Juan Jose Aroztegi. Langileak oso motibatuak omen daude. “Langileek jakin behar dute zein desafio daukaten aurrean. Langileak arduratu behar dira enpresaz. Berariaiek dira protagonistak. Debe-
katuta daukat lantokian eskulan hitza aipatzea. Eskulana aspaldiko kontua da. Langile-

en sormena, ilusioa, ahalegina eta gogo handia nahi-taezkoak dira. Lantoki barruan ordenadoreak, giro klimatizatua... dago. Ados nago Lopez de Arriortuak langileek langile jaunak deitzen dienean”.

Aceralia

Iazko urteaz geroztik Aceraliako parte da Aristrain. European konpententziarik handienetarikoa Luxemborgoko Arbedekin zuen eta enpresa hau ere Aceraliako partaide denez, gauzak zertxobait arindu egin dira. “Lehen Europako hirugarren eta munduko bosgarrenak ginen. Orain Luxemborgoko Arbedekin batera, aurreraxeago egongo gara.

“Berrikuntzari dagokienean, beti alerta egoeran egon beharra daukagu. Gaur egun inozoak bakarrik sentitzen dira eroso. Eroso sentitzea suizidioa da. Berrikuntzarako, noski, taldea, langileak behar ditugu”.

Goierri: eskualde pribilegiatua

Horrela ikusten du Juan Jose Aroztegik Goierri, leku pribilegiatutzat. Enpresa eta enpresari onak, langile onak sortzen dituen eskola eta Goieki nabarmendu ditu ordiziarrak. “Enpresa handi oso garrantzitsuak daude Goierri. Herri guztietan aurkitzen ditugu enpresa oso konpetitiboak eta hainbestekoak ez direnak ere bai. Hemen Goierri oso industria ezagunak eta konpetitiboak dauzkagu. Eta hori oso kasu arraroa da. Horregatik Goierri dago langabeziarik txiki-
na. Goierri oso dinamikoa da. Enpresa batzuk traktoreak izaten dira, hemen CAF, Aristrain, Irizar... dira. Munduko enpresaririk onenak ditugu eta langileak ere bai”.

Goiekik ere meritu handia dauka Aroztegiren esanetan. “Oso garrantzitsua da Goieki. Administrazioa hain gertu edukitzea eta erantzunak hain azkar ematea guretzat oso garrantzitsua da”.

Goierri Lanbide eskola ere oso-oso garrantzitsua omen da Goierriko industriarentzat. Goierri Lanbide eskolan injineru tekniko eskola jartzeko aukera aztertzen ari direla aurreratu digu Aroztegik. “Eskolaren dinamika oso garrantzitsua da. Eskualde pribilegiatuan bizi gara”.

Oso garrantzitsua da Aris-
trainentzat eta Goierriren-
tzat”.

Itea

Zarrastelkeria edo despilfarroa saihesteko eta altzairuaren promozioa egiteko sortu zen orain dela 4 bat urte Itea. Ordizian dauka kokalekua. Eta Aroztegi-
rentzat oso garrantzitsua da horrelako bulego bat Goierri izatea. Ordiziarrak adierazi digunez, altzairuaren erabilpena bultzatu behar da zubiak, etxeak, merkatal gune handiak... egiteko. Bate-
tik, merkeagoa delako, beste-

tik, azkarrago lan egiteko aukera ematen duelako eta azkenik, garbiagoa, ingurugiroarekiko eragina txiki-
goa delako.

Enpresari onenaren saria

Gipuzkoako Ganbarak urte-
ro ematen dituen Gipuzkoako enpresari onenaren saria, aurtengo martxoan, Juan Jose Aroztegik jaso zuen. Poz handia hartu zuen. Baina argi dauka, sari hau “Aristraingo enpresako taldeak egindako lan guztia-
ren errokonozimentua da. Talde hau gabe, ez bailitzateke posible izango teknologia, antolakuntza eta kultur berrikuntza sakonik egitea”.



“Ekogarbi ilargia be-
zain garbi”

☎ 943 16 02 23 - 970 95 00 88
Atxisain baserria IDIAZABAL

Garbiketa eta
mantentze
zerbitzuak

SERIOSASUNA,
KONFIDANTZA,
PROFESIONALITASUNA

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Erkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnok.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

MUTILOA

San Pedro jaiak beranduxeango

San Pedro eguna astelehena izan bazen ere, zertxobait atzeratu egin dituzte aurtengo jaiak. Dena den astelehenean txerriaren jait-siera izan zen eta giro alaitzen Ainhua Munduate eta Olatz Nograro trikitilariak aritu ziren. Astebururako utzi dituzte ekintzarik nagusienak.


Uztailak 3, ostirala:

19:30ean: Suziriak.

8:00etan: Sagardo dastaketa eta txistor jatea. **Ondoren:** Oilasko errea izango da.

23:30ean: Etzakit taldearekin dantzaldia.

Bukaeran: Txokolate jana herriko enparantzan.



Uztailak 4, larunbata:

12:00etan: Poteo herrikoia.

14:00etan: Herriko gazteen bazkaria.

16:00etan: Haur jolasak. Opari asko izango dira.

17:00etan: Herri mailako futbito partiduak.

18:00etan: Bola lehiaketa.

19:00etan: Ardo bana-keta herriko enparantzan.

20:00etan: Meza Santua.

20:30ean: Herri afaria.

23:30ean: 'Alaitz eta Maider' eta 'Maixa eta Ixiar' taldeekin dantzaldia. **Ondoren:** Txerri harrapaketa herriko enparantzan.

Eguna ondo amaitzeko: Baratxuri zopa.

Uztailak 5, igandea:

Kriseilu taldeko txistulariekin goizeresia.

11:30ean: Meza Nagusia.

Ondoren: Gabiriako Goruntz dantza taldearen ekitaldia.

12:30ean: Toka lehiaketa, federatu gabekoentzat.

13:00etan: Zeberio eta Gorrotxategi bertsolariak.

Ondoren: Ainhua Munduate eta Olatz Nograro trikitilariak.

18:00etan: Bola lehiaketa.

18:00etan: Trialsin erakustaldia.

19:30ean: Herri-kirolak: Zegama, Olaberria eta Segura. **Ondoren:** Bertsolariak.

Arratsaldeaz eta gauerarte: Ainhua Munduate eta Olatz Nograro trikitilariak.

PATXI erretegia

San Pedro jai zoriontsuak pasa itzazue guztiok!



& 943 80 15 75
Liernia Auzoa
MUTILOA



MUJIKAJatetxea

- ✓ Menuak kartan
- ✓ Ezkontza eta janaldietan berezituak

☎ 943 80 15 07 - 943 80 16 99
Liernia Auzoa MUTILOA

OSTATU JATETXEA

Festa onak pasa!

Herriko Plaza Tfnoa.: 943 80 11 66 MUTILOA



Mutiloako Udala

MUTILOAKO SAN PEDRO JAIK

Urte osoan zehar hainbeste esperotako San Pedro Jaiak. Herriarroi jai zoriontsuak igarotzea opa dizuegu eta bertara hurbiltzen zaretenok disfruta ezazue herriak eskaintzen dizkizuen aukeraz. Denon artean giro jator eta alaia egin dezagula.

Aldi berean eskerrak eman nahi dizkiegu festak antolatzen parte hartu duten guztiei.

San Pedro jai zoriontsuak!

BEASAIN

Meritu handiko denboraldia amaitu du Beasainek

Loinatzen Talaveraren aurka bana berdinduz amaiera eman zion S.D. Beasainek 97/98 denboraldiari. Igoera ligaxkan 3 puntu besterik ez dituzte lortu, azken postuan sailkatuz, baina horrek ez du ahaztuarazi behar urtean zehar lorturiko garaipenak eta emandako maila ona. Play-offean Malaga, Terrasa eta Talavera gehiago izan diren arren, Beasainek maila polita eskaini du, eta adibidez, gaztelarren aurka ez du partidurik galdu.

Gauzak honela, Manuel Diez 'Navarro' eta bere mutilen lana goraipatzekoa da, aurrekontu oso txikiko eta bertako jokalariek josiriko taldeak maila ederra eman baitu. Eta jokalaria esperientziadunen garrantzia ahaztu gabe, denboraldiko gauzarik pozgarriena goierritar futbolari gazteek eman duten maila izan da. Horregatik, urtearen balorazioa egiteko horien ordezkari bat hautatu dugu, Jakes Gibelalde erdilaria.

- Zer iritzi du Jakes Gibelalde play-offaz, agian arerio zailegiak izan ditu Beasainek?

- Hasieran, izenak eta aurrekontuak ikusita, teorikoki gu baino talde hobeak ziruditen. Eta agian hala izan dira, baina merezi baino puntu gutxiago lortu ditugu. Puntu gutxien lortu diren ligaxka izan da eta gure aukerentzako egokiena zela iruditzen zait. Baina lehenengo partidua klabea izan zen, orduan Malagari irabazi bagenio igotzeko borrokan izango ginen.

- Beraz, gehiago egin zenezaketela uste duzue?

- Bai, taldeko giroa hori da.



Jakes Gibelalde Beasaingo erdilaria.

Puntu gehiago lortzeko merituak egin ditugu, baina play-offean ligan izan dugun zortea falta izan zaigu. Behintzat gabi geratu zaigu promozioa jokatzeke maila badugula, eta nahiz eta talde hobeak aurkitu aurrez aurre zorte pixka batekin eurekin borrokan izan gintzekela.

- Momenturen batean entrenatzaile eta jokalarion burutik pasa al da 2. mailara igotzea?

- Hasieran ilusioa beti egoten da, baina lehen partidua etxean galdu ondoren gutxitzen joan zen. Dena den, norberaren aukeretan sinistu beharra dago, bestela ez du merezi jokatzerik, erridikulua egiteko arriskua baituzu. Bagenekien zaila zela, baina igotzeko aukeran pentsatu pentsatu genuen.

- Dena dela, amaiera nahi bezain ona ez izan arren, S.D. Beasainen denboraldi ona goraipatu behar da.

- Hori garbi dago. Pasa den uztailan inork ez zuen sinistuko play-offera iritsiko ginenik; mantentzea ere helburu zaila zen, jende gaztegia zegoela esaten zen, bertakoa, e.a... Baina lehen partiduetan ondo hasi ginen, ondo ibili gintzekela sinisten hasi gi-

nen, eta emaitzak eta zortea alde izugarriko morala hartu genuen. Aurrean maila eta aurrekontu handiko taldeak izan ditugu, jokalaria ezagunekin. Baina, ikusi da 11 jokalariek zelaian dena ematen badute desberdintasun hori ez dela nabarmentzen. Gure kasuan ikusi dugu, lan eginez gero emaitzak iristen direla, kalitate minimo bat izanez noski,

eta hori badugula demostratu dugu.

- Pertsonalki iaz oso gutxi jokatu ondoren, 40 partidutik gora jokatu dituzu 4 gol eginez. Gustora egotekoa da.

- Bai, uztailan esanez gero ez nuen sinistuko horrelako denboraldia egingo nuenik, oso gustora nago. Beti ere hobetu daiteke, baina egingadako lanaz pertsonalki oso gustora nago.

- Bertako jende gaztearen aldeko apustua egin zen urte hasieran, aukera ona izan da zuontzat, eta gainera, maila ona eman duzue.

- Aldaketa nahiko arriskuetsua zen, baina erakutsi dugu ondo eramanez gero aurrera ateratu daitekeela. Ikusi da hemen inguruan futboleko ondo egiten duen jendea bada goela. Orain urte batzuk oso urruti ikusten genuen 2.B mailan jokatzea, hori profesionalentzat da pentsatzen genuen. Baina ikusi da ilusioz eta lana eginez maila ematen dugula. Kalitate aldetik agian play-offean nabarmendu dugu diferentzia handiena. Ikusi dugu ez dugula 2. mailara igotzeko adineko kalitate eta esperien-

tziarik; baina 2.B mailan ondo ibiltzeko adinako kalitate badoa Goierri aldean.

- Datorren urterako zer intentsio ditu Jakes Gibelalde?

- Bertan jarraitzeko asmoa dut, momentuz ez dut beste helbururik.

- Eta zer egin dezake S.D. Beasainek datorren denboraldian?

- Datorren denboraldia oso zaila izango da. Izan ere, zaleentzako maila bera ez badugu ematen gaizki arituko gara. Gainera, 11 hilabeteetako denboraldi luze honen ondoren, normalena taldea fisikoki zerbait jaistea izango litzateke, ikusi beharko da zein neurritan. Hori bai, helburua berriro mantentzea izango da. Mailako aurrekontu txikienetakoa izango dugu berriro, eta ondorioz helburua mantentzea izan behar du. Eta beti bezala hasiera oso garrantzitsua izango da, ondo hasiz gero beste helburu batzuk izan litezke, baina momentuz mailari eustea.

Hilabete eskaseko oporrak izango dituzte S.D. Beasaingo jokalariek, 11 hilabetez luzatu den denboraldia errekuaratzeko. Ez dira egun gehiegi izango, baina agian aurretik espero ez zuten lagungarri bat izango dute. Izan ere, Malagako enpresari talde batek, Malagaren igoeran laguntzen bazuten, talde osoa oporraldi batez sarrituko zuela agindu baitzuen duela aste batzuk. Eta beasaindarrek Talaverarekin lorturiko bi berdinketei esker Malaga bigarren mailara igo denez, ea emandako hitza betetzen duten eta oporraldi hori iristen zaien S.D. Beasaingo jokalaria eta talde teknikoari.

SEGURA

Gaixoen eguna

Goierrri bailarako gaixoen eguna ospatuko da uztailaren 5ean Seguran. Txistulari eta dantzariak lagunduta, 12:30ean meza izango dute, bertsolari eta guzti, parrokiari. 14:00etan bazkaria Baratzte Pelotalekuan. Ondoren Joxe Insausti eta Azpillaga arituko zaizkie bertsoan. 120ren bat lagun espero dira, 15en bat herritar.

Santiago bizikletaz

Patxi Garaialde, Karlos Garaialde semearekin batera, uztailaren 10ean da ateratzeko Santiago bidea bizikleta gainean egiteko asmoarekin. Aita-semeak, egunean 75en bat Km eginez, 12-13 egun beharko dituzte, Santiago bezpera aldera, santuaren katedralera iristeko, 920 kilometroren ondoren. Eguneroko bizikleta saioa goizez amaituz, erretiroak bideko aterpetxeetan egiteko asmoa dute.

Labur-labur

● **Elorri tonbolako urdaiazpikoen sariak:** ekainak 20: 202. Ekainak 23: 485. Ekainak 25: 1.018.

● **Toka:** Antonio Agirrek ekainaren 24an Urretxun eta 28an Ezkion lehen postuak lortu zituen. Gipuzkoako txapelketan 4. eta Euskadi-koan 9. egin berri du.

● Ekainaren 27an jokatu zen Asegarreko txapelketaren torneoan **Martin Alustiza** herritarra txapelkun geratu zen Arretxe lagun zuela 22-6 irabazi ondoren Unanue eta Errastiri.

● **Maite Telleriak** 4. postua lortu zuen ekainaren 28an Huescako Monzonen izan zen Espainiako pisu-jaurtiketa txapelketan.

Festetako probak eta emaitzak

● **Arrantza Txapelketa:** 10 partehartzaileetatik lehenena Enetz Olano (17 amurruin). Segurako errekorra gainditu zuen. 2. Jon Antia geratu zen (8 amurruin).

● **Bola probintziala:** 66 partehartzaile. Martxeliño Agirre lehenena (36 birla).

● **Toka probintziala:** 18 partehartzaile. Antonio Amundarain irabazle. Antonio Agirre 3.

● **XLI San Juan Txirrin-dulari proba:** 200en bat ziren irteeran eta 30en batek amaitu zuten. Irabazlea Ruben Oarbeaskoa (Olarra).

● **Plater-tiroa:** antolaketa arazoak medio, ez zen burutu.

● **Marraski txapelketa:** 120ren bat neska-mutikok parte hartu zuten. Eskolau-

rra: 1go Janire Garmendia, 2. Maddalen Urbizu, 3. Olatz Telleria. **1go eta 2. maila:** 1go Mireia Paredes, 2. Josune Antia, 3. Egoitz Juantorena. **3. eta 4. maila:** 1go Endika Mantecon, 2. Eneko Montes, 3. Mikel Biain. **5. eta 6. maila:** 1go Gorka Gerriko, 2. Anaiz Goia, 3. Soraya Paredes.

● **Euskadiko XXII. Euskadiko Dantza Txapelketa:** Kimetz Larrañaga eta Eneritz Epelde azkoitiarrak txapelkun.

● **Mozorroak:** bakarka 1go saria: Mikel Garziandia. 2. saria: Alex Rekondo eta Etor Telleria. Taldeak: 'San Joan sisters'.

● **Pelota:** profesionaletan Alustiza-Imaz 22-19 Salaberria-Zezeaga. Afiziona-

tuetan: Apezetxea-Hombre 22-14 Etxaniz-Etxeberria.

● **Koadrilen arteko 2. futbito txapelketa:** nesketan 3 koadrila. Irabazleak 'Segurako emakunde'. Mutiletan 3 koadrila. Irabazleak 'Kamigol'.

● **Jubilatuak jokoak:** emakume eta gizonezko, 90 partehartzaile. Irabazleak: potean 1go Felix Jauregi eta 2. Felix Oiarbide. Igel-jokoan 1go Joakin Izaguirre eta 2. Gregorio Izaguirre. Tokan 1go Juan Ormazabal eta 2. Joxe Manuel Ormazabal.

● **Toka herrikoia:** emakumezkoetan, 35 partehartzaileetatik 1go Puri Oiarbide egin zuen eta 2. Pakita Apolazak. Gizonezkoetan, 57 partehartzaileetatik Jon Agirre izan zen lehenena eta Rafa-

● **Udako kirol jarduerak:** 12 eta 14 lagunekoko taldeak arituko dira tenisean, mendi bizikletan, mendi jolasetan eta saskibaloian, ekainaren 29tik uztailaren 17ra.

● **Pelota:** J.A. Hombrek Castellanoekin batera, uztailaren 4an, 17:00etan, Añorgako torneoan jokatu du. Irabaziz gero, finalaurrekoetara pasako dira.

● **Udalekuak:** Abaigar: ekainaren 27tik uztailaren 11ra, 11-12 urteko 8 lagun izango dira. **Erriberri:** uztailaren 16tik 28ra 9-10 urteko 8 lagun.

● **Igeriketa:** aurtien ere ikastaroa izango da. Informazioa igerilekuan.

● **Etxekoandreen txangoa:** uztailaren 14an Santillana del Mar-era. Izen ematea Jermanenen lehenbailehen.

Joseba Telleria



'Abelino Barriola' saria


Ekainaren 17an jakin zuten Laiotz Herri Eskolako 6. mailakoek, Eusko Jaurlaritzako Euskara Zerbitzuak antolatzen duen 'Abelino Barriola' deklamazio lehiaketan lehenengo saria jaso zutela. 6. mailako 18 ikasleek, antzerki bat, bi elaberri eta olerki zati, Segura Irratian zintan grabatuta bidali zituzten sariketara. 92taldek (1600 ikasle) parte hartu zuten lehiaketan eta 7 bakarrik izan ziren sarituak. Sari modura, ikasleek 4 eguneko bidaia izango dute Hondarribira. Bi irakasle, berriaz, Hungariara joateko aukera. 'Txanbolinpe' taldekoak, argazkikoez gain, Karlos Gonsalves, Gorka Azpeitia, Txomin Etxezarreta eta Josetxo Etxezarreta izan ziren. Saria lortzen lagundu dieten Ana Ormazabal irakaslea eskertu nahi dute ikasleek Goierritarren bidez.

ZALDIBIA

Euskal abizenak euskal grafiaz



Euskal Abizenak
Euskal Grafiaz



Udaleko Kultura batzordeak euskal abizenak legalki, agiri guztietan, euskal grafiaz idazteko aukera eskaintzen du. Horretarako nahikoa da Espainiako Nartasuna Agiriaren (ENA) fotokopia bat Kultur etxera eramatea. Gogoratu ekainean zehar ere honetarako aukera izan dela. Orain arte hainbat eta hainbat lagunek eskatu dute aldaketa, eta besteok ere uztailaren amaierara arte duzue aukera.

Honetaz gain, beste zenbait kultur ekintza ere izan dira aurreko egunotan. Partaidetza nahiko zabala izan dela azpimarra daiteke, batik bat ekainaren 19ko bertso jaialdian.

Herensugea

Ekainaren 23an Udalak antolatutako ekitaldiez gain, euskal presoak Euskal Herriatzearen aldeko Herri Ekimenak giza-kate berezi bat prestatu zuen herensuge bat gidari zelarik. Partaidetza oso zabala izan ez zen arren, jendearen ikusmina piztu zuen.

Gazte festak

Oraindik gauzak finkatu gabe dauden arren, Gazte Taldeak uztailaren erdialdera zenbait ekintza burutzeko asmoa du. Horien artean Abiadura Handiko Trenak (AHT) herrian egingo duen ibilbidea oinez egitea. Datozen egunetan kartel bidez zehaztuko da informazioa.



Udako ekintzak

Dagoeneko hasi dira haurren udako jarduerak. Ekainaren 29az geroztik 90 bat haur (Gaintzakoak barne) biltzen dira goizeko 10etatik eguerdiko ordu bata bitarte, zazpi begiraleren agindupean. 15 bat lagun aurkeztu ziren begiraleen hauta-probetara eta honako hauek izan dira aukeratuak: Marijo Zoilo, Amaia Sainz, Idoia Zoilo, Ainhoa Agirre, Artzai Garmendia, Aitziber Irazusta eta Ustaritz Ormaetxea.

Bestalde, asteazkenean hasi zen aerobic ikastaroa 13 urtetik gorako herritarrentzat. Piraguismo ikastaroa uztailaren 13an hasi eta 18an amaituko da, eta gazteentzako kirol jarduerak (BBT, orienteering, frisbee...) uztailaren 6tik 8ra izango dira.

Kronikari berriak

Hemendik aurrera herriko berriak zabaltzen Iñaki Gurrutxaga eta Saroi Jauregi arituko gara. Gure kronike-

tan zerbait aipatzea nahiko bazenu, jo gugana lasai!

*Iñaki Gurrutxaga
Saroi Jauregi*

LEGORRETA

Patxi Eskitxabelen aldeko korrikaldia



Patxi Eskitxabel legorretarra eta bera bezala espetxe zigorraren hiru laurdenak beteak izan arren espetxean jarraitzen duten 66 preso gipuzkoarren alde Gipuzkoako herrietan barrena korrikaldia egin zen ekainaren 20an.

Ekimena goizeko 4etan atera zen Donostiako Easo plazatik, Patxi Eskitxabel bertan bizi baitzen. Iluntze-

an bukatu zen korrikaldia, lekukoa eskuz esku pasatu ondoren. Korrikaldia Legorretara iritsi zenean, omenaldi ekitaldia izan zen Eskitxabelen etxe aurrean. Presoaren amari eta sendiartekoei aureskua dantzatu eta lore sorta eskaini ondoren, aurrera jarraitu zuen korrikaldiak. Patxi Eskitxabelek 18 urte daramazki kartzelan.

ATAUN

Ainara Gorostizu

Hasteko, Ainara Gorostizu herriarrak Urruzuno literatur lehiaketan sari bat irabazi du bigarren urtean segidan. Prosa arloko A mailan (17 eta 18 urtekoak) hartu du parte 'Londresko bluesik ederrena' lanarekin. Saritutako lana aspal-diko amodio zahar bat berreskuratu nahian, barkamena eskatuz idatzitako eskutitz gisa agertzen zaigu. Irabazitako saria, berriz, ez da nolanahikoa: 10 eguneko bidaia irailaren azken aldera (Hungariara, seguraski), gastuetarako 40.000 pezeta, Oroigarri bat eta idazlanaren argitalpena *Sagastiberri* saileko liburuan. Zorionak eta gozatu!

Jokin Goikoetxea

Kiroletan puntan-puntan dabilen beste ataundar bat berri orain: Jokin Goikoetxea Monzón (Huesca) aldera joana zaigu Espainiako gazte mailako atletismo txapelketan parte hartzera. 400 mtako proba da bere erronka. Aupa!

Zenbait kirol

Urtean zehar herrian egiten diren kirol ekitaldietzat ere kurtso amaiera iritsi da, jakina. Hona hemen izandako emaitzak:

Ataungo V. pilota txapelketan: Palan, Urrestarazu-Kaballerok 21, Begi-

Kurtso amaierako nota ezin hobekak

ristain-Soraluzek 35. **Es-kuz**, Dorronsoro-Sukiak 19, Goikoetxea-Barandiaranek 22. **Frontenisean**, Ormazabal-Aranburuk 30, Soraluze-Sotok 10.

Auzoetako IV. frontenis txapelketan:

Asurabarrenak 23, Galparsorok 30.

Auzoetako II. badminton txapelketan: Emakumezkoetan: Barandiaranek 0, Aranak 2. **Gizonezkoetan:** Eskisabelek 2, Auzmendik 0.

Zelaiko II. badminton txapelketan: Urdangarinek 0, Begiristainek 2. **Hirugarren adinekoetan:** Apalategik 2, Arratibelek 0

Ataungo V. futbito txapelketan: Finala: Jaduxek 5, Gurutze tabernak 2. **3. eta 4. postuak:** Alboka tabernak 9, Gehitxonek 4.

Barandiaran Fundazioa

Joxemiel Barandiaran bizi izan zeneko Ataungo Sara etxea erosi baitu Fundazio honek. Erosketa honen helburua da, Joxemielen gauzak, liburuak... etorkizunari begira kontserbatu eta zaintzea. Galduezinako ondare edo altxorra utzi zigun eta!

Josune Aldabe



Santa Ixabel jaiak Aian

Aiako Jai batzordeak, Udalaren babesarekin antolatu dituen jaiak hauexek dira:

Uztailak 3, ostirala: haurren eguna:

17:00etan: Ume jolasak.

21:00etan: Rock kontzertua: Fist Fucking, Deen Dogs eta The Body Snatcher taldeekin..

24:30ean: Koldo Iparragirreraren trikitilaria taldearekin dantzaldia.

Uztailak 4, larunbata:

18:00etan: Gazteen pilota partiduak: 1. mailako afizionatuak: Garmendia Zubizarretaren aurka; 2. mailako afizionatuak: Imaz Dorronsororen aurka.

19:00etan: Sardina, sagardo... dastaketa.

24:00etan: Etzakit taldearekin gau pasa.

Uztailak 5, igandea:

10:30ean: Meza nagusia.

12:30ean: Erlojuaren aurkako txirrindulari proba, Kaxeta-Aia ibilbidean.

17:30ean: XIII. Dantzari Txikien txapelketa, Sakanako trikitilariekin. Mugatua.

Ondoren: Herri-kirolak.

Gauean: Sakanako trikitilariekin dantzaldia goizalderarte, jaietako amaiera emanez.

EROSKI

KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 943 88 27 93

ORDIZIA



Zaldizurreta kalea

☎ 943 88 45 06

BEASAIN

- ✓ Aholkularitza juridikoa
- ✓ Entrepresa zerbitzuak
- ✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92

Kale Nagusia, 2 BEASAIN

ORDIZIA

Iritsi da azkenean final haundia

XIX. Lagunarteko Futbol Txapelketak igande honetan ezagutuko du aurtengo txapelduna nor izango den. Alde batetik iazko txapeldu-nak egongo dira, Tximista Sagardotegiko mutilak, eta bestetik Altamirako E.R.Matxain Ileapaindegikoak. Azken hauek lehen aldia izango dute lehiaketako final handia jokatu du-tena.

Tximista Sagardotegiak Morapios utzi zuen kanpo-an finalurrean, 2 eta leko aldeko emaitza lortu ondo-ren. Matxainek zailagoa izan zuen, penaltietan lortu baitzuen finalerako txartela. Arauzko denbora binako berdinketaz amaitu ondo-ren, luzapenean Badago tal-dea aurreratu zen baina az-kenean Matxainek ere hiru-garrena sartu eta partidua amaitu zen. Penalti jaurtike-tetan Altamirakoak finago ibili ziren eta igandean iaz-ko txapeldunei aurre egite-ko aukera izango dute.

Finala eguerdiko 12etan jokatu da eta aurretik 3-4. postuak erabakitze-ko neur-keta izango da. Orainarteko norgehiagoka guztiak beze-la, partiduok Anexo futbol zelaian jokatu dira eta ziur, eguraldia lagun, ikusle ugari hurbilduko dela.

Ondoren, ohiturak ja-rraitze-ko asmoz, txapelke-tan parte hartu duten jokala-ri guztiek bazkaria izango



Ordiziara plataformaren kontzentrazioa

Eugenio, Antxon, Jokin eta Josu Ordiziara plataformak he-rriko preso hauen egoeraz kezkatuta dauden herritar guztiei beren askatasuna eskatzeko kontzentrazio isilerako deia egin zien, ekainaren 27an. "Eugenio Irastorza, Antxon Garcia del Molino, Jokin Zubeldia eta Josu Aierbek beren kondenaren hiru laurdenak beteak dituzte dagoeneko eta Espainiako Ko-de Penalaren 90. artikulua arabera kalean egon beharko lukete. Plataformak legea bete dadin eskatzen du".

dute Jai Alai Pilotalekuan. Guztira 300en bat ordiziar izango dira eta antolatzaile-ek prestatuko duten jatekoa ez da nolanahikoa izango: paella, solomilloa eta ijito besoa, hain zuzen. Hori guztia, noski, herriko hain-bat tabernarik emandako edariekin lagunduta. Trofeo banaketa ere izango da, dendariek ere beren nola-baiteko laguntza ere es-keintzen baitute. Bazkaria amaitzean eta pilotalekua txukundutakoan, denak ba-tera herriko kaleetan zehar ibiliko dira jai giroan.



Badatozela festak

Otegi Enea festak amaituta, orain Altamirakoak iritsiko zaizkigu. Eta, noski, segi-dan herriko Jai Nagusiak. Hau dela eta, herriko koa-drilak animotsu ikusi dai-tezke jadanik (matutinarako zein moztorro jantziko du-

gun, danborradan aterako ote garen, koadrila egunera-ko musika banda badauka-gun, non bazkalduko du-gun, tabernek zein azkar it-xi behar dituzten atek...).

Jai Batzordeak egitaraua ere ia prest dauka, festetara-ko ere prest egongo da urte-roko aldizkaria, nagusien eta haurren danborradarako entseuak ere hasiak daude. txozna batzordea ere bilerak egiten hasia da... Azken fi-nean, badatozela festak.

Altamirako jaiak

Uztailaren 10etik 12ra bi-tartean Altamira auzoko jaiak izango dira, auzota-rrek antolatutako festak.

Oroith abesbatza Cantabrian

Ekainaren 27an kontzertua eskaini zuen Oroith abesba-tzak Cantabriako Polanco herrian. Era honetan, irailera arte oporrak hartuko ditu abesbatzak.

Zinea pilotalekuan

Goieniz zine klubak antola-turik, bi pelikula eskainiko dira Beti Alai pilotalekuan. Gaur ostirala, uztailak 3, gaueko 10,30etan, 'Con la muerte en los talones' sus-pentsezko pelikula ikusteko aukera izango da. Uztailaren 9an, ordu berean, berri-z, 'Los Siete magnificos' wes-tern ospetsua.

Aitor Calvillo

KUBIA

AU-PAIR
 FAMILIAK EUROPA GUZTIAN ETA EEBetan
 INGALATERRAKO HOTEL ETA LANDETXEETAN
 LANPOSTUAK KONTRATUAREKIN
 Arrasate, 33 behe C DONOSTIA
 Tel-Faxa: 943 43 15 48

GOIERRITARRA

943 88 96 12

EGUZKI
 INFRIMATEGIA
 Nafarroa
 Etorbidea, 9
 943 88 94 82
BEASAIN

IDIAZABAL

Uztailaren hasierarekin batera udako martxa hartu du herriak. Herri-eskolan nahiz inguruko ikastetxetan aritzen diren neska-mutikoak oporretan daude. Herriko hainbat zerbitzuko ikasturteko ordutegia aldatu dute eta beste batzuk oporrak hartu dituzte:

Kultur Etxea ekainaren 30ean itxi zuten eta hala egongo da iraila bitartean.

Liburutegiak ikasturte guztian izan duen ordutegi bera izango du uztailaren ere. Arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara egongo da zabalik. Liburutegian ezezik igarilekuan ere izango da liburuak eta aldizkariak irakurtzeko aukera. Liburutegiko taldeak azken urteotan bezala liburutegiko hainbat ale eramango baititu igarilekura.

Kiroldegia ordutegi berria izango du uztailaren.



Goizean 10etatik 1era egongo da zabalik eta arratsaldean 6,30etatik 9etara. Aerobic saioek ere jarraituko dute uztailaren, arratsaldeko 7etatik 8etara izango dira hilabete osoan.

Odol emaleak

Ekainaren 23an egin zen urteko bigarren odol ematea. Urtero egiten diren emanaldi kopurua bukatzeko beste bat falta den arren, odol emale taldekoak baikor agertu dira izandako eran-

tzunarekin. 65 lagun azaldu ziren odola ematera, sekula izan den kopururik altuena, horietatik zortzik gainera lehendabizikoz eman zuten odola.

Urriaren 5ean Odol emaleek Ataunen egingo duten festan bost herritarrei oroigarria emango die elkarre horrek 25 bider odola eman dutelako. Odol emaleen elkartetik gazteei deia egiten zaie emale egin daitezen eskatuz.

Triatloia

Uztailaren 24ean, ostirala, jokatu da aurtengo herriko triatloia. Kiroldegia antolatuta herritar guztiei zabalik izango da aurtengo ekitaldi hau. Izena emateko epea zabalik dago.

Gazta batzordea

Herrian, Idiazabal gazta saltzeko asmoa duten dendetan adierazgarri bereziak jartzekotan dabil Gazta batzordea. Denominazioak aurkeztu ditu dagoeneko hainbat eredu. Horiek dendariei aurkeztu eta denen aretan proposena aukeratzeko dute.

Galdutako kartera

Duela egun batzuk eliza inguruan kartera bat aurkitu zuten. Udaletxean dago jasota.

Xabier Urteaga

ORMAIZTEGI

Ekainaren 20an ireki ziren udal igerilekuak. Uda etorri denaren seinale. Irailera bitartean egongo dira zabalik eta hainbat zerbitzuz gozatzeko aukera izango da.

Igerilekura joaten zaren bakoitzeko ordaindu beharreko sarreraren prezioak hauek dira: 0-5 urte bitarte haurrek sarrera dohainik izango dute; 5-7 bitartekoek 185 pezeta ordaindu behar dituzte; 7-18 bitartekoek 315 eta 18 urtetik gorakoek 440.

Abono bereziak badaude, uda merkexeko ateratzeko. 20 bainuetarako txartelak, 0-5 urte bitarteko haurrek dohainik izango dituzte; 5-7

bitartekoek 2.715 pezeta kostako zaie; 7-18 bitartekoek 5.015; eta 18 urtetik gorakoek 6.690 pezeta.

Uda guztirako txartelak ere badaude: 0-5 urte bitartekoentzat dohainik izango da; 5-7 urtekoek 3.285 pezeta ordaindu beharko dituzte; 7-18 bitartekoek 5.510 eta 18 urtetik gorakoek 7.735 pezeta.

Familia osoentzat txartelak erosteko aukera ere bada. Bi kideko familiek 11.020 pezeta ordaindu beharko dute; hiru kidekoek 12.075; lau kidekoek 13.520; eta bost kideko familiek 14.300 pezeta.

Txartelak egin eta argibi-

Uda prest

de gehiago jasotzeko udal bulegoetan izango duzue aukera.

Haurrentzako udaleku irekiak

Uda etortzearekin batera eta haurrak oporretan daudenez, aurtengo udaleku irekiak antolatu dira, uztailaren 6tik 17ra bitartean. Bertan 4 urtetik 10 urtera bitarteko haurrek har dezakete parte. Udaleku ireki hauetan eskulanak, irakurketa tailerrak, jolasak, irteerak... egingo dira, astelehenetik ostiralera, goizeko 10,30etatik 1,30era.

Izen emateko epea gaur, uztailak 3, bukatuko da.

Haur bakoitzeko 6.000 pezeta ordaindu behar dira. Bi senide izanez gero, 10.000 pezeta eta hiru senide izanez gero, 15.000.

Txakurren txertaketa

Txakur jabeek beraie txakurrak identifikatu eta amorraren aurkako txertoa jartzeko kanpaina egingo da, Udaltzaia eta Jose Inazio Aldasoro albaitariaren elkarlanari esker. Txertaketak frontoi zaharretan atzean egingo dira, egun eta ordutegiak hauetan: uztailaren 3an, 18:00etatik 20:00etara; eta uztailaren 4an, 9:00etatik 11:00etara.

Aitziber Murua

LAZKAO

Maila ona San Benito Ikastolako kirolariek

Uztailera iristen garen heinean, gaztetxoek oporrak hartzen dituzte. Ikastolako buru-haustekak alde batera utzi eta jolastu eta kirola egiteari ekiten diote gehienek urte sasoi honetan. Baina ez pentsa kirol guztia uda garairako uzten dutenik, ikasturtean zehar ere kirol ugari egiten dute eta oso ondo gainera, emaitzak ikusirik behintzat.

San Benito Ikastolan kirol desberdinak egiten dituzte urtean zehar, baina, atletismoa da, emaitzei dagokienez, arrakasta gehien ematen dituen. Esaterako, mutil infantilak, Gipuzkoako txapeldun eta Euskal Herriko txapeldunorde izan ziren eta neska alebinak, berriz, hirugarren Gipuzkoako Txapelketetan.

Bakarkako txapelketetan ere, emaitzak onak izan dira esan behar da. Hala nola, Bikenai Miguez altura jauzian, Beñat Garmendiak disko jaurtiketan, Iraitz Imazek pertika jauzian, Itsaso Galarragak pisu jaurtiketan eta Garazi Zabaletak pilota jaurtiketan lehenengo postua lortu zuten Gipuzkoako Txapelketan. Bigarren postua lortu zuten, bestalde, Jon Fontenlak pisu jaurtiketan, Juan Mari Alvarezek 80 metro hesidunetan, Xabier Zurutuzak salto hirukoitzean, Laida Senarrek 60 metrotan eta Asier Parrak 60 metro hesidunetan. Azke-



Ekain Arruabarrena Munduko

Txapelketara

Ekain Arruabarrena, lazkaotar txirrindularia, notizia dugu berriro ere. Iaz bezala, aurtengoan ere Espainiako txapelduna izan da Lesakan izan ziren txapelketetan. Aurten, halere, paralisi zerebrala duen kirolari honek, sari berezi bat jaso du bere esfortzu guztiaren truke, irailean

Kolorado Springsen izango da bertan jokatu diren Munduko Txapelketetan. Ekain, gogo biziz dago bertara joateko, eta eskerrak eman nahi dizkie lagundu dioten guztiei eta bereziki bere familiari, Fermin Zunzunegiri, Kemeneko langile guztiei eta sortu berria den bere peñakoei, peña 'kaskos'-ekoei, hain zuzen. Guk ere gertutik jarraituko ditugu Ekainen joan etorriak.

nik, hirugarren postuarekin konformatu behar izan ziren Xabier Urdangarin 80 metrotan, Bikenai Miguez disko jaurtiketan eta 4x80 metrotako erreleboa osatzen zuten Beñat Garmendia, Bikenai Miguez, Julen Olaran eta Xabier Zurutuza.

Euskal Herriko txapelketan, normala denez, emaitzak bajuxeagoak izan ziren, baina, onak halere. Juan Mari Alvarez bigarrena izan zen 80 metro hesidunetan eta hirugarrenak izan ziren, berriz, Jon Fontenla pisu jaurtiketan, Beñat Garmendia disko jaurtiketan, Bikenai Miguez altuera jauzian eta Xabier Urdangarin 80 metrotan.

Gainera esan beharra dago San Benito Ikastola dela Gipuzkoa mailan talde gehien aurkeztu dituen ikastetxeetako bat, talde hauetan parte hartzen dute 100 gaztetxok gutxi edo gehiago.

Emaitza onenak atletismoan lortzen badira ere, beste kirolek ere garrantzi handia dute emaitzei dagokienez. Besteak beste, boleibolea mutil infantilak gipuzkoako txapeldunorde izan ziren eta bigarren izan ziren baita ere neska alebinak, baina, hauek pilotan. Saskibaloian ere emaitza txukun askoak lortu ziren. Kirolari gazte hauek ziur gaude zer esan eta zer ida-

tzia emango digutela aurrerantzean ere.

Goieniz kalean

Goieniz kalean zikloaren barnean, bi saio izango dira Lazkaon. Lehenengoa aurreko asteazkenean izan zen eta 'Ella es única' pelikula eskeini zuten. Bigarrena, berriz, datorren ostiralean, uztailak 10, izango da plazako pilotalekuan, eta bertan 'Los siete magnificos' pelikula botako dute gaueko 10,30tan. Bi pelikula hauek gazteleraz eta dohainik eskeiniko dira.

Udako Euskal Ikastaroak

Aurtengoan ere, Udako Euskal Ikastaroetan, ekitaldi ugari izango dira, euskarra ikastera datozenen eta herriarren arteko harremanak gehitzearen. Lehenengo bi ekitaldiak hauexek izango dira:

Uztailaren 9an, osteguna, antzerkia izango da Debako Goaz taldearen eskutik. 'Gure Buruari, Kuku' antzezlan eskeiniko dute arratseko 21,30etan Maizpideko zinema aretoan.

Uztailaren 14an, asteartea, Koldo Ameztoy ipuin-kontalariaren emanaldia izango da Maizpideko zinema aretoan, arratseko 21etan.

Urko Irastorza



RENAULT
AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO



AHOLKULARITZA
Hiribarren, 30
943 16 23 93
LAZKAO

♣ Aholkularitza juridikoa, fiskala, laborala, kontablea...

♣ Zure arazoentzat neurri-neurriko erantzunak ditugu!



PAGOSA
OKINDEGIA

943 88 55 00 ORDIZIA

GABIRIA

Antton Jaimek, Errepideetako diputatuak, Kamiño Zaharra inauguratu du

Gipuzkoako Foru Aldundiak diputatuen kontseiluak iazko irailaren 2ko bileran erabaki zuen Ormaiztegitik Legazpira Motxorron zehar doan Kamiño Zaharreko errepidea konpontzea eta abenduan hasi eta Aste Santu ondorenera arte konponketa lanetan aritu ondoren, joan zen ostegun goizean inauguratu zuen errepideetako diputatua den Antton Jaime jaunak. Gipuzkoako diputatuaz gain bertan izan ziren Xabier Murua alkatea jauna, Legazpiko alkatea, Juan Ramon Larrañaga jauna, eta Diputazioko eta Altuna y Uria enpresako beste zenbait teknikari.

Errepidearen historiari helduz, badirudi errepide hau, gaztelaniaz Camino Real deiturikoa eta euskaraz Kamiño Zaharra, 1846. urtean egin zela, Gipuzkoako



Errepideetako diputatua eta gainerantzeko agintariak errepide hasieran.

Diputazioak ordura arte burujabetasuna zuen Oñatiko Udalarekin egindako hitzarmen baten ondorioz. Oñatik Gipuzkoan barneratzeko jarri zuen baldintza, bestea

beste, errepide hori egitea izan baitzen.

Errepidea konpontzearen helburu nagusia, eta beti ere Antton Jaimeren hitzetan, Ormaiztegitik Zumarragako

errepide nagusian zerbait gertatuz gero zirkulazioa hemendik bideratzea litzaiteke. Dena den, autoz ibiliz gero kontu handiz gidatu behar da, errepidea estu samarra baita eta kunetarik ez duenez arriskutsua ere bai zenbait lekutan.

Hori dela eta, badirudi Diputazioko arduradunek hitz eman dutela dirua izan bezain laster kunetak egiteari ekingo diotela. Bien bitartean auto gidariek arretaz gidatu beharko dute baina oinezkoek eta txirrindulariek leku paregabea dute inguruko paisaiak ikusiz aldapa handirik gabeko ibilaldiak burutzeko.

Lan hauek Altuna y Uria enpresak burutu ditu eta likidazioa 68.600.000 milioikoa izan da.

Gabino Murua

ZEGAMA

Urteroko legez uztailaren 18-19ko astebukaeran, Mugaz Muga ibilaldia antolatuko da. Ekintza honek Zegamako herria inguratzeko aukera paregabea eskaintzen du.

Mendiaren edo ongi pasatzearen maitale izanez gero, bertan parte hartzeko izen ematea udaletxean egin beharko da, uztailaren 13a baino lehen.

Animatu eta ingura eza-zu Zegama mugaz muga!

Diapositibak

Mugaz Muga ibilaldiak hainbat ihardunaldi izan dituela eta, hauen nondik norakoak erakusteko diapositiba emanaldia antolatu da. Hainbat pasarte ikusteko parada izango da beraz, uztailaren 10ean, 20:00etan, herriko Kultur etxean.

Parrokiko Batzar Nagusia

Uztailaren 4an, 19:30ean, Parrokiako Batzar Nagusia egingo da Kultur etxean.

Maidor Azurmendi

Mugaz Muga ibilaldia gainean dugu

Barrenaldeko III. Bazkaria

Aurtengoan ere aurreko urteetako jendearen erantzuna ikusirik, Barrenaldeko III. Bazkariaren antolaketa aurrera doa. Uztailaren 18an, larunbata, izango da, Intxaustiko industrialdean, eguerdiko ordu bietan. Ordu bataz geroztik, dena den, pintxoak jateko aukera izango da. Guztia, 3.000 pezetaren truke, 10 urtetik haurrek merkeago izango dute, 1.500 pezetan.

Bazkarirako txartelak uztailaren 8an eta 9an, arratsaldeko 6etatik 8ak bitartean, Arrigtxen erosi ahal izango dira. Egun horietan joan ezin duenari, beste norbaitekin dirua bidaltzea gomendatzen zaio lanak errazteko, edo bestela Arrigtxera (943-801116) edo Gosategi-Barrenara (943-801625) deitzea, uztailaren 10a aurretik. Izena emateko epeak errespetatzea eskatzen dute antolatzaileek.

Xabier Azurmendi, 3 urtez jarraian, dantza askatuko Euskal Herriko txapeldun

Xabier Azurmendi zegamarrak 15 urte beteko ditu hilabete honetan. 7 urterekin hasi zen dantza askatuko munduan. Harrezkero, 70 bat kopa eta 17 bat txapel ditu bitrinan. Horietariko hiru, Bergarako Euskal Herriko txapelketan lortutakoak dira. Hiru urtean jarraian irabazi du, Janire Urbieta bikotearekin, Euskal Herriko txapela. Datorren urtean Segurako Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko asmotan dabil zegamarra.

Bergarako Euskal Herriko txapelketa 15 urte bete artekoentzakoa izaten da eta aurten izan du parte hartu duen azkeneko aldia. Handien mailara salto egingo du, eta Gipuzkoako eta hainbat herrietako txapelketekin batera, Segurako Euskal Herriko txapelketa izango du orain lehiarako.

7 urterekin hasi zen dantza askatuan entrenatzen. "Billabonara panderoa ikastera joaten nintzen, jendea dantzan ikusi nuen, gustatu eta dantzan hasi nintzen". Maila ona erakutsi du txikien mailan eta ho-

rreren lekuko da 3 aldiz jarraian, Euskal Herriko txapelketa irabaztea. Bergarako Janire Urbieta du bikote laguna eta bere aita dute entrenatzaile. Euskal Herriko txapeldun izandakoa da irakaslea bera. "Urte asko darma-zkigu elkarrekin. Bikotea oso konpenetratua egotea beharrezkoa da eta aldatzea ere pena izango litzateke. Aurrera begira ere bera- rekin jarraituko dut", dio Xabierrek.

Urtean zehar larunbatean izaten dituzte entrenamentuak, goizeko 9etatik 1,30ak aldera arte. Asteazken zehar, bakoitzak bere aldetik, etxean entrenatzen dute. Xabierrek ganbaran du entrenamentu lekua, ispilua bertan jarrita. Bideoak jarritik ere ikasten aritzen da. "Saltoak eta nola egin behar diren ikasten aritzen naiz".

Maiatzetik urrira bitartean izaten dute txapelketa denboraldia eta orduan gehiago entrenatu behar izaten dute. "Txapelketen aurretik asko entrenatu behar izaten da eta hori izaten da txarrena. Urtean zehar asteazken behin entrenatzen dugu eta txapelketaren aurretik, elkartu eta entrenatzen aritzen gara. Batzuetan



gu Bergarara joanez eta alderantziz". Txapelketak jarraian izanez gero gainera, Xabierrek ikusten du alde txarrik. "Mania txarrak hartzen dira. Entrenamendu gutxi eta txapelketa asko edukiz gero, irakasleak zuzentzeko aukerarik ez da izaten. Txapelketetan galdu egiten da".

Dantza askatuan zailena indarrarekin bukatzea omen da. "Eskuak goian edukitze-ko ere ariketa bereziak egiten ditugu. Oso zaila da eskuak goian edukitzea, batez ere, bueltetan. Fuerte eutsi behar zaie goian".

Dantzan aritzeaz gain, futbolekin ere ibiltzen da Xabier. "Batzuetan bakar- ren bat utzi behar izaten dut, baina biak gustatzen zaizkit. Dantza eta futbola ondo uztartzen diren kirolak dira, Txema Agirre masajis-

tak esan didanez".


Zegaman ere sortu da dantza taldea. Euskal dantzak ikasten dituzte, eta ez fandango eta arin-arina bakarrik. Xabier bertako partaidea da. Aurreko txapelketak ere izaten dira baina "horretan txarra naiz. Flexibilitate gutxi daukat, eta hanka gutxi altxatzen dut".

Jantziei gero eta garrantzia handiagoa ematen zaie dantzan.

Sari bereziak ematen dituzte, Segurako txapelketan kasu. "Kasu beti egiten zaio jantziari, baina niri behintzat senziloak gustatzen zaizkit. Neska batzuk orain oinetarainoko gonarekin joaten dira. Politaren bila joaten dira, baina gero ezin izaten dute ondo dantza egin".

Aurrera

Serio heldu dio Xabierrek dantza askatuari eta aurrera begira jarraitzeko asmoa dauka. Ametsa Segurako txapelketa irabaztea du, baina bere amak dioenez, "gustora sentitzea nahikoa du". Fansik handienak etxeak ditu. Familia guztia joaten omen da txapelketetara. Hori bai, Xabier lasai egoten den bitartean, fam- liakoak urduri izaten omen dira.



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran
ZERAMIKAK**

☎ 943 88 79 72
**Senpere. 7
BEASAIN**



1965eko Segurako doktriña taldea

Segurako doktriña taldea da, 1965. urtekoa. Urte amaierako irteera, Lierniara egin zuten, uztailaren 14ko egunez.

Goian, ezkerretik eskubira: Maixabel Telleria, Mirari Urrujulegi, M. Tere Elorza, M. Isabel Garaialde, Ana M. Ormazabal, Inmakulada Aristimuño, Cristina Huerta eta Garbiñe Etxeberria.

Beheran: Joxe M. Telleria, Lourdes Aristimuño, Eskarne Huerta, Nati Ormazabal, Inmakulada Martinez eta Jose Ramon Eriz (apaiza).



**Urtean 1.500 pezetako
kuota ordainduz,
GOIERRITARRA aldizkaria
lagundu nahi dut
Goierritarrak Kultur
Elkarteko kide eginda**



Izen abizenak:

Helbidea:

Herria: **Tfnoa.:** **Adina:** .. **NAN:**

Lanbidea: **Banketxea:** **Bulegoa:**

Kodea: **Kontu zenbakia:**



NEKAZALTURISMOA



*Naturaz goatzeko eta
Goierrri ezagutzeko*



ALDARRETA

- 4 logela bikoitz
- 2 bainugela
- Egongela terrazaduna
- Gosari bazkari eta afariak
- Sukaldea erabiltzeko aukera

☎ 943 18 03 66

ATAUN (San Martin)



LIZARGARATE

- ✓ Loela bikoitz bat bainugelarekin, 5 logela bikoitz, 4 bainugela, egongela
- ✓ Otorduak bertako produktuekin ematen dira

☎ 943 88 19 74

Lazkaomendi

LAZKAO



TELLERIÑE

- 6 logela bainuarekin
- Egongela, Jangela
- Sukaldea erabiltzeko aukera
- Gosari eta afariak

Urte osoan zabalik

☎ 943 58 20 31

Aizpea Auzoa

ZERAIN



MANDUBIKO BENTA

Jatetxea

- 2 logela bikoitz bainuarekin
- Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoak, arkumea...

Mandubiko gaina

☎ 943 88 26 73



BAZTARRIKA

- ✓ Etxe osoa alokatzen da: 2 logela, bainugela, sukaldea eta egongela.
- ✓ Baserriko produktuak eta ardi gazta salgai.

☎ 943 88 30 44

Ugaran Auzoa

GABIRIA



LAZKAO-ETXE

- 4 logela, beren bainugelekin
- Gosari, bazkari eta afariak
- Jatetxe bezala ere asteburuetan zabalik

☎ 943 88 00 44

Aiestaran erreka ZALDIBIA




AIZPORRA

- ✓ 5 logela bikoitz, bi bainugela, sukaldea erabiltzeko aukera.
- ✓ Ardi gazta salgai

Larraitz bidea

☎ 943 58 20 11

ZALDIBIA



*Uztailak 1-etik 18-rarte
edo existentziak bukatu arte*

GUZTIA EROSIKO NUKE.

MERKEALDIAK

EHUN ETA OINETAKOAK

PRYCA

Entzuten zaitugu.